

artek

**ERREFORMA
ETA IRAULTZA**



GEDAR

Erreformak –izan burgesak
edo izan proletalgoak
aldarrikatuak–, borrokako
garaipen baten ofizializazio juridiko gisa
baino, borrokan konkistatutako posizio
taktiko aurreratu gisa –Rosa Luxemburgek
artikulu honen hasieran azaldutako
garapenaren kontzeptuarekin bat–,
proletariotza komunistaren antolakuntza-
garapen estrategikorako bitartekoa
dira. Horregatik, posizio taktiko horiek
konkistatzeko borrokari uko egiteak iraultza
sozialistari uko egitea esan nahi du.

Edukia

6

10

32

54

EDITORIALA

Arteka

**Erreforma
eta iraultza**

ERREPORTAJEA

Arteka

**Datorren pentsioen
erreforma
Espainiako Estatuan**

KOLABORAZIOA

Adam Radomski

**Lan erreforma
proletariotzaren
bizi baldintzen
aurkako ofentsibaren
markoan: azterketa
kritikoa**

ERREPORTAJEA

Jose Castillo

**Funtsak,
baldintzazkotasuna
eta krisia:
Europar Batasuna
mehatxatzen duen
ekaitz perfektua**

Erreforma eta iraultza

Editoriala

Erreforma legala eta iraultza historiaren erakusmahaian libreki hauta daitezkeen garapen historikorako bi metodo ezberdin ez zirela esan zuen behinola Rosa Luxemburgek. Bere ikuspegiaren arabera, erreforma eta iraultza klase gizartearen garapeneko momentu ezberdinak dira, elkar baldintzatzen eta elkar osatzen dutenak baina, aldi berean, elkar baztertu eta elkarrengandik aldentzen direnak.

Handia da pentsamendu horren arrasto politikoa. Izan ere, beste termino batzuetan, horrela dio: erreforma ez da etsaiari libre utzi behar zaion gudu zelaia. Gehiago ere esan genezake: erreforma eta iraultza klase gizartearen garapeneko momentu ezberdinak badira, horrek esan nahi du iraultza erreformak nagusi diren testuinguru orokorrean indartu egiten dela; hau da, iraultzak proletalgoaren eguneroko borroketan aurkitzen du hazteko aukera eta ez da borroka horiek gauzatzeari uko eginez antolatzen.

Larria litzateke erreformen aldeko zein horien aurkako borroketan parte hartzeari uko egingo bagenio, hots, proletalgoaren askatasuna ikusgaitz den ustezko iraultza baten esku utziko bagenu. Sarri esan dugun bezala, erreformen aldeko borrokek

***Erreforma eta iraultza klase gizartearen
garapeneko momentu ezberdinak
badira, horrek esan nahi du iraultza
erreformak nagusi diren testuinguru
orokorrean indartu egiten dela; hau
da, iraultzak proletalgoaren eguneroko
borroketan aurkitzen du hazteko
aukera eta ez da borroka horiek
gauzatzeari uko eginez antolatzen***

antolakuntza komunista indartzea izan behar du xede. Proletalgoak bere antolakuntza gaitasunak indartzen ditu garaipenak eskuratu ahala: hazi egiten da kualitatiboki, irakaspenak pilatuz, baina baita kuantitatiboki ere, irakaspenak eta antolakuntza-teknologiaren hobekuntzak, borrokaren berotara, hazkuntza militantea baitakar berekin.

Erreformen aurka, baina, proletalgoak eta antolakuntza komunistak propaganda politikoa hedatzeko aukera dute. Ikusi da komunismoaren hedapena Euskal Herrian azken urteotan ezarritako salbuespenezko neurrien nahiz eskubide politikoen deuseztapenaren aurkako borrokaren babesean. Ez dio Mugimendu Sozialistak espazio horiei uko egin; are gehiago, aipatutakoaren adibide argiena da Mugimendu Sozialista, zeinak, koiunturazko auziak zirela defendatu izan duten sozialdemokraten atsekaberako, erakutsi baitu, hain zuzen ere, erreformen eta zapalkuntzen eskala horretan artikulatzen dela benetan estrategia komunistarako aukera.

Honako hau bada, argipen teorikoaren aitzakiapen, eta beraz, modu idealean gauzatu ezin den plan estrategikoa baldintzatzen jarrita, eskala horretako borrokei uko egiten dieten komunistentzako mezu bat ere. Antolakuntzaren eskala internazionalaz dihardugunean, berau ez da ebaz-

Erreformen aurka, baina, proletalgoak eta antolakuntza komunistak propaganda politikoa hedatzeko aukera dute. Ikusi da komunismoaren hedapena Euskal Herrian azken urteotan ezarritako salbuespenezko neurrien nahiz eskubide politikoaren deuseztapenaren aurkako borrokaren babesean. Ez dio Mugimendu Sozialistak espazio horiei uko egin

ten behin-behinean ezarritako antolakuntza-mar-koaren arabera, baizik eta iraultzaren edukiaren arabera, zeinak –bere hedapenerako eta bere prin-tzipioen araberrako artikulazio oso eta zuzen ba-terako– eskala internazionala behar duen egitate bihurtzeko.

Proletalgoa borrokan hezten da, alabaina; bo-rrokan lortzen du bere independentzia politikoa. Teoriak mugimenduaren zerbitzura behar du, bere sintesi sistematiko eta argia izan behar du; soilik horrela bilaka daiteke gida-tresna, tresna soil a-izateari uzten dihonean. Eta tresna egokia den edo ez, hori eskala desberdinetan burgesiaren boterearen aurka, eta bere adierazpen zehatzaren aurka, eki-teko duen gaitasunen arabera neurtzen da. Hori baitu baldintza teoriak: antolakuntza eta borroka, eskala desberdinetan, adierazpen zehatz desberdi-nen aurka.

Dimentsio horrek berebiziko garrantzia izango du estrategia komunistaren garapenean. Hein han-di batetan, proletalgoaren masa antolakunde komu-nistek burgesiaren erreforma programei erantzun beharko diete, hau da, programa ekonomikoan aurkako borrokan osatuko dira aukera politikoa eta iraultzaile gisa.

Esku artean dugun zenbakiak burgesiak azken hilabeteotan, bere estatu-aparatuaren bitartez, sustatu dituen zenbait erreforma ditu aztergai. Azterketa hori garrantzitsua da, erreforma horien ezagutza zuzenaren bitartez argitu dezakegula-ko estrategia komunistarako taktika-plan egokia. Azken batean, erlazio sozialetan (ekonomikoak) emandako iraultzen adierazpen juridiko-politi-koak dira burgesiaren erreformak; alabaina, sarri, erreforma horiek azaleratzen dituzte aipatutako al-daketak edota argitzen dute burgesiaren estrategia esparru desberdinetan, hala nola, bere ofentsiba gaitasunak proletalgoaren defentsa-gaitasun poli-tikoei eraso egiteko.

Ez dira, hargatik, erreformak gertatu denaren adierazpen soilak. Hori eta gehiago dira. Errefor-mek burgesiaren interesak eta estrategiak agerian uzten dituzte, burgesiak uneaz duen ikuspegi poli-tikoa argitzen dute eta bere ofentsiba ekonomi-ko eta politikoaren nolakotasunaren berri ematen dute. Erreformak subjektu burgesaren adierazpen zehatzak dira, hau da, subjektuak Estatuaren espa-rruan hartzen duen forma zehatza dira.

Beraz, erreformen esparruko borroka, eta hu-rrengo orrialdeetan datorren analisiari dagokionez,

Ez dira, hargatik, erreformak gertatu denaren adierazpen soilak. Hori eta gehiago dira. Erreformek burgesiaren interesak eta estrategiak agerian uzten dituzte, burgesiak uneaz duen ikuspegi politikoa argitzen dute eta bere ofentsiba ekonomiko eta politikoaren nolakotasunaren berri ematen dute. Erreformak subjektu burgesaren adierazpen zehatzak dira, hau da, subjektuak Estatuaren esparruan hartzen duen forma zehatza dira

ez da proletalgoaren helburu estrategiko handiak murriztea, ezta horiek berehalakoaren inertzian agorraztea ere. Estrategia komunistak aurrera egin ahal izango du soilik politikaren eta esplotazio kapitalistaren eremu zehatzenetan sareak ehuntzen dituen heinean, eta soilik adierazpen zehatz horiei erantzuteko gai bada eta, horien bitartez, bide ematen badio ekoizpen modu kapitalista bere oinarrietatik iraultzeko beharrari. Erreformak –izan burgesak edo izan proletalgoak aldarrikatuak–, borrokako garaipen baten ofizializazio juridiko gisa baino, borrokan konkistatutako posizio taktiko aurreratu gisa –Rosa Luxemburgek artikulua honen hasieran azaldutako garapenaren kontzeptuarekin bat–, proletariotza komunistaren antolakuntza-garapen estrategikorako bitartekoa dira. Horregatik, posizio taktiko horiek konkistatzeko borrokari uko egiteak iraultza sozialistari uko egitea esan nahi du. ●



10

Datorren pentsioen erreforma Espainiako Estatuan

Testua — **Arteka**

Irudia — **Zoe Martikorena**

**«Denek aitortzen dute.
Hau lehertzera doa»**

— Le Comité invisible

Pentsio-sistema publikoek adineko milioika langileren errenta-sostengua osatzen dute Europako gizarteetan. Hein batean, langile mugimenduaren konkista historiko baten emaitza izan dira, baina baita kapitalaren autoerregulazio, modernizazio zein pazifikazio sozialerako ezinbesteko tresna ere. Ahobiko arma, beraz. Estatu burgesek kudeatzen dituzten funtsok mekanika arriskutsu batek mugiarazten ditu, gainera. Zentzu komunean nahiko zabaldua dagoen aurreiritzia da *pentsioen itsulapikoa* deiturikoa etxeko itsulapiko batean dirua gordetzea bezalakoxea dela, aurrezki-transakzio soil eta ziurra. Uste hori ezin okerragoa da. Kotizazioak ez dira burtsako inbertsioak edota apustuak baino askoz operazio ekonomiko seguruagoak, osagai espekulatibo handia baitute. Areago, estatu gehienek defizit finantzario estrukturalari erreparatuz, gogoan izan behar dugu pensioak zorpetze publikoan oinarritutako gastu sozial orokorrean kokatzen direla. Beste nolabait esatearren, administrazioek epe ertaineko aurreikuspen makroekonomiko birtualetan oinarrituta diseinatzeko dituzte pensio-planak, eta atek zabaldua uzten dizkiote, atzeraldi ekonomikorik egotekotan, moldaketa gehiagori. Orduan, noiz arte eta nola eutsiko diote pensio publikoek krisi kapitalistaren ekaitzari nahiz euren gabezia estrukturalari? Espainiako Estatuan ezartzen hasia den pensioen erreforma berria aukera paregabea da etorkizun hurbileko agertoki posiblez mintzatzeko.

Espainiako Estatuako pensio-sistema publikoa ezaugarritzekoan, ezer baino lehen, *belaunaldiarteko elkartasuna* eta titularitate publikoa aipatu behar dira. Gaur-gaurkoz, Estatuak unean uneko langileen eta enpresariengatik kotizazioak baliatzen ditu momentuko pensioak ordaintzeko, hau da, une historiko jakin bateko zuzeneko soldatak dira pensioen zakuen lehengaiak. Kapitalismoaren berezko ezaugarria da, ordea, langileen zuzeneko soldatek

Zentzu komunean nahiko zabaldua dagoen aurreiritzia da pensioen itsulapikoa deiturikoa etxeko itsulapiko batean dirua gordetzea bezalakoxea dela, aurrezki-transakzio soil eta ziurra. Uste hori ezin okerragoa da

eta burgesiaren irabaziek gorabeherak esperimentatzea. Zentzu horretan, 2008ko krisiak haustura-momentu bat dakar Espainiako Estatuako pensio-sisteman: langileriaren ikuspuntutik, geroraturako soldatak jasotzen dituzten beharginen (pentsiodunen) bizi-baldintzen kaskartze orokorra eragin du. Kapitalarentzako, berriz, errenta-forma horien gaineko eraso sarraskijalerako abagune paregabea ireki da.

MUGAK, OINARRIAN


Ezaugarri espezifikoagoetara joz, bereziki larriak diren ahulgune demografiko zein ekonomiko estrukturalak nabarmendu behar genituzke. Dimentsio ekonomikoari dagokionez, Espainiako Estatu bere ekoizpen-egituraren errentagarritasun-tasa baxuagatik edo *balio erantsi* apalagatik da eza-guna ^[1]. Nola orekatzen du oligarkiak desabantaila hori? Soldatak erasotuz, bere zentzu zabalenean. Espainiako soldata-erregimenaren eboluzioari erreparatuz gero, lan-indarraren prezioa 1998tik 2011ra geldituta egon zela konturatuko gara, eta aldiz, gastu sozialak (zeharkako soldata) proletarizazioaren babes-dike funtzioa betetzen zuela. 2010. urtetik aurrera, soldataren debaluazioa eta gastu sozialaren murrizketa nabaritzen hasi zen, ordea ^[2].

Egungo lan-merkatuan txertatzen diren gazte langile gehienek pensioen batez bestekoa baino gutxiago irabazten dutela ikus dezakegu. Zehatzago

esanda, Espainiako Estatuan bizi diren gazte askok pentsio maximoa duten beren aitona-amonek jasotzen dutenaren erdia edo erdia baino gutxiago jaso dezakete beren lan-indarraren ordainetan. Horri biztanleriaren hazkunde-tasa baxua eta oraindik indarrean den bizi-esperantzaren igoera gehitzen badizkiogu, deskalabrua datorkigula susma dezakegu. Pentsioen erreforma berriaren arduradun politikoei ihes egiten diote arazoari, esanez bizi-itxaropenak gora egin ahala erretiro-adina handitu behar dela, baina arazoa atzetik dute segika. Santiago Niño Becerra ekonomialariak zera ohartarazten du: «Bizi-itxaropena murriztu egingo da osasun publiko unibertsalak, prestazioei eusteko dituen ezintasun finantzarioengatik, murrizketak egiten dituen heinean» [3]. Bizi-itxaropenaren etorkizuneko jaitsierak ez du biztanleriaren zahartzea bere horretan geldiaraziko, eta erretiro-adinaren atzerapenari mugak ezar diezazkioke. Biak ala biak baldintza kaskarrak dira pentsio publikoei eusteko.

Perspektiban jartzearren, zahartze demografikoaren mundu mailako sailkapeneko bigarren postuan dago Espainiako Estatuak, Japoniaren atzetik eta hura gainditzeko aurreikuspenarekin. Hego Euskal Herriko datuak ez dira hobeak: 2021ean Espainiako Estatuan 65 urte edo gehiago zituzten biztanleak % 19,77 ziren, eta aldez, Hego Euskal Herrian % 22,14 ziren, batez beste [4]. Espainiako ikerketa burges ugarik ere geroz eta arrazoi gutxiago dituzte baikortasunaren apologiarako, 2050erako jubilarazio adinean egonen diren pertsonen estatuko biztanleriaren % 30 baino gehiago osa dezaketela onartzen baitute. Nazioarteko analisiak ezkorragoak dira, eta % 40tik gora kokatzen dute erretiro-adinean edo hortik gertu egonen diren biztanleen multzoa [5]. Aurreikuspenok betetzen badira, soldatapeko eta pentsiopeko langileen arteko proportzioa alderantzizkatu egingo da, hots, aurki jende gehiago egon daiteke erretiratuta lanean baino, horrek ekar dezakeen desoreka guztiarekin

Erretiro-adinean dagoen pertsona bakoitzeko aktibo dagoen biztanleria kopurua Espainiako Estatuan [6].



soreka guztiarekin. Espainiako Estatu eta Hego Euskal Herriko egungo datuen alderaketa eginez, susma dezakegu aipatutako haustura-puntua gurean lehenago irits daitekeela.

Aurreko zifrak azaltzeko bi faktore sukoi daude, gutxienez: langabeziaren kronifikazioarako tendentzia gorakorra eta *baby boom* belaunaldiaren [7] erretiroa. Kontrakorik frogatzen ez den artean, teknologiaren garapenak sozialki beharrezkoa den lan-denbora, eta beraz, lan-eskaria murrizten jarraituko du. Zentzu horretan, lan-indarraren soberakin orokorra haztea espero daiteke. Adam Radomskik azaldu moduan, kaleratze masiboak, kontratu partzialak, aldi baterako enplegu-erregulazio txostenak, aldizkako lan-kontratuak, finko ez-jarraiakorren figuraren hedapena zein behin-behinekotasuna gure eguneroko ogia izanen dira datozen urteetan [8]. Horrek guztiak beherantz bultzatuko du soldaten batez bestekoa, eta berez ahula den Gizarte Segurantzaren funts-bilketaren eraginkortasuna are gehiago murriztuko du.

Bigarren aspektuari dagokionez, *baby boom* belaunaldiaren erretiroaren garrantzia ez da termino demografikoetan duen pisu kuantitatiboan

**Aurki jende
gehiago
egon daiteke
erretiratuta
lanean baino,
horrek ekar
dezakeen desoreka
guztiarekin**

Espainiako Estatua bere ekoizpen-egituraren errentagarritasun-tasa baxuagatik edo balio erantsi apalagatik da ezaguna. Nola orekatzen du oligarkiak desabantaila hori? Soldatak erasotuz, bere zentzu zabalenean

soilik neurtu behar; baita ekonomiko-ki, eta beraz, politikoki dituen ondorio kualitatiboetan ere. Urte gutxi barru, ondoko atakan aurkituko da Madril: Gizarte Segurantzaren historiako langile-belaunaldi ugari eta oparoenetari-koaren pentsioak finantzatu beharko ditu, soldata erreal baxuenak dituen eta demografikoki murriztena den langile-belaunaldiaren soldatak oinarri hartuta. Nola kudeatuko dute hori? «Erreserba Funtsarekin», esango luke batek baino gehiagok, Ongizate Estatuaren ustezko diru-jario amaigabea-ri dei eginez. Kontua da 2011 eta 2021 bitartean % 90 hustu dela Erreserba Funtza, zehazki, 66.000 milioi eurotik 2.000 milioi eurora murriztu dela ^[9]. Beraz, aukera bakarra geratuko zaie datozen urteetan Moncloan egongo diren exekutibo guztiei: maniobra-marjina txikidun politika antiproletarioak ezartzea eta Bruselatik datorren likidezia pozindua onartzea.

Zifrek adierazten duten moduan, belaunaldi arteko elkartasun printzipioari eusten dion oreka sozioekonomikoa hausten bada, pentsio publikoen historia iragarritako heriotza baten kronika litzateke. Langile belaunaldi berrien perspektibatik, inguruan en-



***Erreforma bakoitzak
lanaren errentetatik
kapitalaren errentetara
geroz eta transferentzia
handiagoak
ahalbidetu dizkio klase
menperatzaileari***

pirikoki nabarituko dute urte luzez lan egin eta kotizatzeak (lanpostua lortzekotan) ez dituela zahartzaroan bizi-baldintza jakin batzuk ziurtatzen. Zaharragoen kasuan, 40 urte inguru lanean aritu arren, lan-merkatutik erretiratzeko sasoian proletarizazioaren hatsa senti dezakete garondoan; askok, lehendabizikoz. Horrek kolokan jarriko du Ongizate Estatuaren *hitzarmen sozialaren* zutabe nagusietariko bat. Langile-mugimendua deseginda eta komunismoaren mamuaren mehatxurik gabe, pentsio-plan pribatuetakojabeek zein bestelako oligarkek ez dute oztopo handirik ikusten, eta pozarren daude datorkienaren aurrean. Putreak hegaka ditugu geure buruen gainetik, aurrean dugun erloju-bonba soziala noiz lehertuko zain.

KRISIAREN ERREFORMAK ETA ERREFORMEN KRISIA

Saia gaitezen lehen jaurtitako galderari modu zehatzagoan erantzuten. Pentsio-sistema publikoaren desoreka kronikoa bada eta horren ondorioz epe ertainean finantzazio-krisi sakona jasan badezake, zenbateraino eutsiko diote pentsio-sistema publikoari? Eta are garrantzitsuagoa: nolakoa izan daiteke berau ordezkatzeko duen eredu berria?

Medikuntzan gangrenatutako gorputz atal bat anputatzen den bezala, estatu burgesek defizit publiko handiena eragiten duten zerbitzu zein eskumenak gainetik kentzeko baliatzen dute krisia. Beste herrialde batzuetan ikusi izan denez, Gizarte Segurantzza progresiboki eta era masiboan desegin daiteke, burgesiarentzat irabaziak handitzeko helburuarekin nahiz *krak*-a gorputz sozial osora heda dadin saihesteko. Pentsioek, soldata-forma bat osatzen duten heinean, gainbalioa (ordaindu gabeko lana) xurgatzeko marjina uzkurtu diezaioke burgesiari. Halaber, trantsiziotik hona, oligarkia finantzarioak koiuntura ekonomikoak eskatu ahala moldatu du Espainiako pentsioen lege-markoa, bere maior-domo politikoen eskutik. Erreforma



bakoitzak lanaren errentetatik kapitalaren errentetara geroz eta transferentzia handiagoak ahalbidetu dizkio klase menperatzaileari. Espainiako demokrazia burgesean pentsioen gaineko doktrina hori ezaugarritu duten bi politika orokor nabarmentzen ditu Mario del Rosal ekonomialariak^[10]:

1. Erretiroko batez besteko pentsioa murriztea, pentsioen oinarri arautzailearen kalkulurako urte kopurua handituta.
2. Baldintzak gogortzea, pentsioa jaso ahal izateko gutxieneko kotizazio-aldia luzatuta.

Bi interbentzio-ildoek, modu batera edo bestera, lan-indarraren etengabeko debaluazioa ekarri dute. PSOE-ren lehen legealdian koka daiteke pentsioen kontrako ofentsiba historikoaren abiapuntu esanguratsuenak. 1985ean, pentsioetara sarbidea izateko gutxieneko kotizazio-aldia 10 urtetatik 15 urtera luzatu zen, esate baterako.

Prestazioaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarria, aldiz, lan-bizitzako azken bi urteetako batez besteko soldata izatetik azken 8 urteetako izatera igaro zen, eta horrek pentsiodun bakoitzak jasotzen zuen zenbatekoa murriztea ekarri zuen. 1995ean batzorde politiko berezi bat sortu zuten Espainiako Diputatuen Kongresuan pentsio-sistema publikoari dagozkion aldaketak proposatzeko: Toledoko Ituna. Tresna politiko horren bitartez, aurrez aipatutako Segurtasun Sozialaren Erreserba Funttsak sortu zituzten, sasoi hartan funts soberakinak biltzen baitzituzten urtero.

PPren gobernuak beste erreforma bat bultzatu zuen 1997an, eta haren bidez, pentsio bakoitzaren kalkulurako oinarria azken 8 urteetako soldatetatik 15 urtera luzatu zen. 2007ko moldaketek zentzu beretik jo zuten, krisiak oraindik eztanda egin ez bazuen ere. Pentsioa jasotzeko beharrezko kotizazio-urte kopurua berriro igo zuten, eta jubilazio partzialerako aukerak estutu zituzten. 2008ko atzeraldi ekonomikoarekin iritsiko zen proletargoarentzako kolpe gogorrena, orduan hasiko baitzen Gizarte Segurantzako sistemaren gaineko finantza-presioa nabarmenki handitzen. Geroztik, askoz zorrotzagoa izan da «aurrekontu-egonkortasuna» deritzon printzipioaren aplikazioa. 2011n, hain zuzen ere, Espainiako Konstituzioan eguneraketak txertatu zituzten eta langile klasearen erosahalmenaren kontrako lege-bateria oso bat jaurti zuten, honako neurriekin:

- Pentsioak izoztea.
- Erretiro-adina 65 eta 67 urte artean atzeratzeko aukera, kotizatutako urte kopuruaren arabera.
- Aurre-erretiroko aukerari eutsi zioten, baina halako kasuetan pentsio osoa jasotzeko 38,5 urteko kotizazioa eskatuta.
- Pentsioaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarri arautzailea 15 urtetatik 25era luzatu zuten.

Ongizate Estatuaren garaian pentsio publikoak arautzen zituzten printzipioak (errentaren birbanaketa eta belaunaldi arteko elkartasuna) indargabetzen joan dira, eta horren ordainetan, «jasangarritasun faktorea» deritzona sendotu da

■ Oro har, pentsio osoa jasotzeko ezinbesteko kotizazio urte kopurua 35etik 37ra igo zuten.

■ Doikuntza automatikoa: adierazle jakin batzuen arabera (bizi-itxaropena, esate baterako) aipatutako baldintzak aldatzea baimentzen zuen faktore berri honek, erreforma osoak egin beharrik gabe.

Gauzak horrela, Espainiako Estatu-ko Gizarte Segurantzak aseguru pribatuaren logika jarraitu duela deritzo del Rosalek ^[11]. Ongizate Estatuaren garaian pentsio publikoak arautzen zituzten printzipioak (errentaren birbanaketa eta belaunaldi arteko elkartasuna) indargabetzen joan dira, eta horren ordainetan, «jasangarritasun faktorea» deritzona sendotu da. 23/2013 Legearen bidez, esaterako, «zahartzaroaren babeserako ulermen individualistagoa» ezarri dela ohartarazten du del Rosalek. Izan ere, bizi-esperantza igo-tzeak pentsio-sistemaren gastuetan dituen efektuak mugatzea izan da azken araudiaren helburua, erretiratua denbora gehiago bizi ahala prestazioak murriztuz. Hori gutxi balitz, Espainiako Estatuak bertan behera utzi zuen langile pentsiodunen erosahalmenari eusteko funtzioa, hau da, uko egin zion pentsioak Kontsumo Prezioen

Indizearen (KPIa) eboluzioarekiko proportzionalki igotzeari. Adibide bat jartzearren, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak 2022ko otsailaren hasieran salatu zuenez, % 5,5 igo zen KPIa; pentsioak, berriz, % 2,5 baino ez zituzten igo ^[12]. Espainiako Estatistika Institutuak martxoaren 11n argitaratutako datuen arabera, prezioen urte arteko aldakuntzak % 7,6ko igoera izan zuen 2022ko otsailean zehar Espainiako Estatuan, 1986ko abenduaz geroztik ikusitako igoera bortitza ^[13]. Estatuarentzat eta merkatuarentzat geldiezina den gorpil zoro bat sortzen da beraz: KPIren gorakadaren ondorioz langileriaren erosahalmena murrizten da, eta horrek kotizazioak zaildu egiten ditu erlatiboki. Horrek, aldi berean, are gehiago murrizten ditu pentsioak, eta berriro ere eragin negatiboa du erosahalmenean. «Pentsioaren zenbatekoa eguneratze hutsa sistemaren oreka finantzarioaren mende gelditzen da, eta beraz, haren babes-ekintza ahuldu-ta gelditzen da» ^[14], ondorioztatu du del Rosalek.

Pentsio-sistema publikoaren dekadentzia tresna fiskalen moldaketaren eta funts pribatuak elikatzeko politiken eskutik joan da krisi garaian. Ohikoa izan da patronala kotizazioetatik salbuestea, sozietateen zergak apaltzea



edota pertsona fisikoen gaineko zerga partzialki ezabatzea, besteak beste. Neurri erregresibook errenta altuetako zergadunei egin diete mesede, goi burgesiari, gehienbat. Bien bitartean, murriztu egin da pentsio-publikoen zakuan kotizatzen duten zergadunen kopurua eta baita bakoitzak inbertitutako diru-partiden bolumen absolutua ere. Duela hamarkada batzuetako soldaten erosahaltenarekin lotuta, ordea, erlatiboki handiagoa da egungo langile bakoitzak kotizatzeke egin behar duen esfortzu ekonomikoa.

Pentsio-funts pribatuen tamaina, berriz, biderkatu egin da. ELGA Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundearen arabera, 2001ean Espainiako Estatuko Barne Produktu Gordinaren (BPG) % 5,8 hartzen zuten pentsio-plan pribatuek, eta 2016an % 14raino heldu ziren. Zifrak are interesgarriagoak dira zertxobait eguneratzen baditugu, izan ere, 2020an % 14,4an kokatzen zen horien proportzioa estatuko BPGaren baitan ^[15]. Geldialdia agerikoa da. Fenomeno hori bultzatzen faktore hipotetikoen artean, berriz, bada proletarizaziorako joera baieztatuko lukeen bat: pentsio-plan pribatuetara sarbidea izan dezakeen populazioa goia jotzen legokeela, alegia.

Hala eta guztiz ere, pentsio-sistema publikoaren degradazioa bi zentzutan izan da funtzionala kapitalarentzat: lan-indarra merketzeko eta «errentagarritasun espazio berriak zabaltzeko», Del Rosalen hitzetan ^[16]. Halaber, trantsizio-une garrantzitsua bizi du pentsio-sistemaren ereduak. 2000. urteko Lisboako Agendan eta 2016an abiatutako Seihileko Europarrear eza-erri bezala, Europar Batasuneko (EB) instituzioen helburua «pentsio publiko zein pribatuek elkar osatzen duten zutabe anitzeko sistema bat» eratzea da. Oreak perfektua hura desio dutenen buruan baino ez da existitzen, ordea: pentsio pribatuekin ez dago *denontzako kaferik*, eta kapital kolektiboaren kontrolpeko pentsio publikoak defizitariorak dira. Europar Batzordeak 1994an

dagoeneko «lehiakortasunarentzako zama» gisa identifikatzen zituen kotizazio sozialak. Ondorioz, «irabaziak sortzeko baldintzak hobetzea» lehenetsi beharko zela aurreikusten zuten, «kontratazioari edo eskulanaren mantenuari dagozkienak murriztuz, Gizarte Segurantzarenak, esate baterako» ^[17].

Beraz, pentsioen titularitate publiko eta pribatuen artean ez dago kontraesan fundamentalik; alderantziz, kapitalaren behar koiunturalen arabera moldatzen diren bi kudeaketa-eredu osagarri direla ikusi dugu. Pentsio publikoei dagokienez, ezin daiteke esan egun batetik bestera desagertuko direnik. Hori bai, bere horretan eutsi diezaieten, aldaketa kuantitatibo zein kualitatibo sakonak jasan beharko dituzte. Langabeziaren igoerak, desoreka demografikoei, Europako estatu gehienek arrastaka daramaten zor publiko potoloak, «errentagarritasun-espazio berrien» behar famatuak eta soldatapekoen erosahaltenaren murrizketak pentsioen bideraezintasun finantzarioa dakarte ezinbestean. Bestetik, langile mugimendu borrokalari eta indartsuen faltan, ez du zentzurik baketze sozialera bideratutako gastuak neurri berean mantentzeak ^[18].

AZKEN ERREFORMA

Pentsioen erreforma berri bat onartu zuen Espainiako Gobernuak 2021eko abenduan. Bertako neurrien eza-erpena bi multzotan banatuta datorkigu: bata 2022ko urtarrilaren 1etik indarrean dago jada, eta bestearen eduki zehatza zein data zehazteke daude lerrook idatzi diren unean.

Lehen blokearekin, langile zaharrenek lan-merkatuan Prometeo arroka-ekin bezala kateatzea izan da euren helburua. Hainbat tresna juridiko baliatu dituzte horretarako, nabarmenena, erretiro adina zuzenean atzeratzearen estrategia klasikoa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, 66 urte eta bi hilabetetan finkatu dute jubilaziorako adin ofiziala. 2027rako, berriz, 67 urtera arte hedatzea aurreikusten dute. Hori gutxi balitz, badirudi PSOE



Langabeziaren igoerak, desoreka demografikoek, Europako estatu gehienek arrastaka daramaten zor publiko potoloak, «errentagarritasun-espazio berrien» behar famatuak eta soldatapekoen erosahalmenaren murrizketak pentsioen bideraezintasun finantzarioa dakarte ezinbestean. Bestetik, langile mugimendu borrokalari eta indartsuen faltan, ez du zentzurik baketze sozialera bideratutako gastuak neurri berean mantentzeak



Lan-baldintza egonkor eta oparoenak izan dituzten langileentzako kolpea arinagoa izango da, baina lanpostuan ezegonkortasun eta prekarietate handiagoa bizi izan dutenek gorriak ikus ditzakete erretiro-aldian

eta Unidas Podemosen gobernuak maximoan esplotatu duela bere *intelligentsia*, berrikuntza kontzeptualak proposatu baititu langileria bizi-baldintzak suntsitzearen arloan. *Erretiro aktiboa* deituriko termino baten baitan soldatapeko lana eta pentsioak uztartzea baimendu dute, adibidez. Borondatezko aurretiko erretiroaren kontrako zigor ekonomikoak, berriz, % 4 gogortu dituzte batez beste. Prestazioa jasotzen duten langileek penalizazio handiagoa ala txikiagoa jasan dezakete, kotizatutako urte kopuruaren arabera. Gizarte Segurantzak hileko pentsiotik diru gehiago kenduko die gutxien kotizatu dutenei, eta gutxiago gehien kotizatu dutenei:

- 38 urte eta 6 hilabete baino gutxiago kotizatuta: % 21eko penalizazioa (2021ean baino % 5 gehiago).
- Denbora hori baino gehiago, baina 41 urte eta 6 hilabete baino gutxiago kotizatuta: % 19ko penalizazioa (2021ean baino % 4 gehiago).
- 44 urte eta 6 hilabete baino gutxiago kotizatuta: % 17ko penalizazioa (2021ean baino % 3 gehiago).
- 44 urte eta 6 hilabete baino gehiago kotizatuta: % 13ko penalizazioa (2021eko berbera).

Zer dakar horrek pentsiodun arruntaren poltsikoan? Adibide bat jartzearen, 1.200 euroko pentsioa (estatu mailako batez bestekoa) duen jubilatu batek 38 urte eta 6 hilabete baino gutxiago kotizatu badu, bere hileko pentsioa 948 euroan geratuko litzateke. Erretiro-adina atzeratzen dutenentzat, berriz, % 4ko ordainsariak eskaintzen dituzte lan egindako urte gehigarri bakoitzeko. Lan-baldintza egonkor eta oparoenak izan dituzten langileentzako kolpea arinagoa izango da, baina lanpostuan ezegonkortasun eta prekarietate handiagoa bizi izan dutenek gorriak ikus ditzakete erretiro-aldian. «Pixka bat gehiago egin behako dute lan», ohartarazi zien Jose Luis Escrivá Espainiako Gobernuak Gizarte Segurantzako ministroak erretirotik gertu dabiltzan *baby boom* belaunaldiko langileei.

Bestetik, Pedro Sanchezen exekutiboak pentsioak KPIren bilakaeraren arabera moldatzea erabaki zuen, baina ez edonola. Prestazio bakoitzari 20 eta 30 euro artean besterik ez dizkiote igo; zifra negargarriak, argiaren, gasaren, gasolinaren eta elikagaien prezioen azken igoerekin alderatuz gero ^[19]. Neurriak ez dira bertan geratzen,

ordea; izatez, EBk garesti ordainaraziko dio langileria pentsioen urtarrileko igoera apala eta Europako funts famatuen injekzioa. Pentsioen erreformaren negoziaketan markoan, «gainkostuari erantzuteko konpentsazio-efektuak» eskatu dizkio Bruselak Madrili. Halaber, prestazioen zenbatekoak kalkulatzeko urte kopuru famatuen «doikuntza» berriak etor daitezke erreformaren bigarren blokearekin, besteak beste.

Komunikabideetan oihartzuna izan duen zurrumurru baten arabera, 25 urte kotizatutik 35 urtera luzatu dezakete pentsioak kalkulatzeko oinarri arautzailea. Espekulazio hutsa litzateke zifra zehatzok ezarriko diren ala ez esatea, edo nor eta zergatik zabaldu dituen ondorioztatzea: oposizio eskuindarrak PSOE eta Unidas Podemos politikoki kaltetzeko zabaldu du? Ala koalizio gobernuak berak filtratu du haserre soziala neurtu eta azkenean ezar ditzakeen kopuru erreal baxuagoekin «hainbesterako ez dela» eman dezan? Ezin jakin, baina dena dela, nahiko ziurra da pentsioen kalkulua egiteko urte kopurua igotzea, eta horrek pentsio guztietan izango du eragina. Ibilbide profetizalean atzera



egin ahala soldatak txikitzen direnez, kalkulu-urteen oinarria zabaltzeak pentsioen batez bestekoan jaitsiera orokorra dakar ezinbestean. Astindu inflazionarioek erosahalmenean eragingo duten kalteaz gain, Espainiako Gobernuak «doikuntza» horretarako beharrezkoa den araudia berrikus- teko konpromisoa hartu du EBren aurrean ^[20].

Luzatutako urte-aldia edozein iza- nik ere, kotizatzaileei beren ibilbide profesionaleko «urterik egokienak au- keratzen» utziko dietela promestu du Espainiako Gobernuak, «erreformaren albo-kalteak arintzeko». Noski, pen- sioen kalkulurako urte kopuruaren oinarria asko zabaltzen badute, zaila izango da bertan urte egokirik auke- ratzea. Oraingoz ez dakigu zein izango den Espainiako Gizarte Segurantzak gastua murriztearen eta ondorioak arintzearen artean bilatuko duen neu- rri zehatza. Bi gauza ziurrak dira baina: Espainiako Gobernuak betetzen duen hitz bakarra Bruselari eta patronalari emandakoa izaten dela, eta Europako Banku Zentralak Espainiako Estatua- ren geroz eta zor gutxiago erosiko due- la aurrerantzean ^[21].

Azkenik, Belaunaldi Arteko Ekitate Mekanismoa (BAEM) legoke etorkizu- nera begira proiektatzen diren mol- daketen artean. Koalizio gobernuak berehala domina eskegi dio bere bu- ruari, PPK 2013an ezarritako jasanga- rritasun faktorea «atzera bota duela» esanez. 2027rako indarrean egongo den BAEMk aurrekoa ordezkatu du, ordea. Pentsioen kalkulurako urte ko- puruaren kasuan bezalaxe, oraindik zehazteke dago zein izango den bere eduki konkretua.





Higiezin familiarrek proletarizazioa leuntzeko koltxoi modura funtzionatu izan dute orain arte, eta rol berbera joka dezakete pentsio publikoen endekapenaren aurrean

Posible da metatutako aberastasun familiarraren transmisio hori progresiboki eteten joatea, eta horrek hurrengo belaunaldien baldintza sozioekonomikoak are gehiago okertzea

KONTRATENDENTZIAK

«No queremos una España de proletarios, sino una España de propietarios» («Ez dugu proletarioen Espainiarik nahi, jabeen Espainia bat baizik»), adierazi zuen Jose Luis de Arrese Espainiako etxebizitza ministro falangistak 1959an^[22]. Espainiako Estatuan politika soziala ordena publikoko auzia izan dela erakusten digute adierazpenok, bai eta higiezin jabetzak bertako politika soziala bereziki ezaugarritu duela ere. Eta ez da gutxiagorako, etxebizitza-jabedunen izaera masiboak desberdintzen baititu Espainiako Estatu eta Europa mendebaldeko gainontzeko ongizate-sistemak. Faktore hori desarrollismo frankista, trantsizioa edota higiezin burbuilaren moduko mugarri historikoak ahalbidetzeko ezinbesteko oinarri materiala ere izan da. Emmanuel Rodríguez historialariak bere azken liburuan azaltzen duenez, «Jabetzapeko etxebizitza, konpentsazio-logika sozial baten arabera, ziurtasunaren eta gizarte-segurantzaren

ren bitarteko nagusian eratu zen»^[23]. Zifretan jarritz, familien % 51 alokairuan bizi zen 1950. urtean, eta 1980an % 20 baino ez. Etxebizitza jabetzan zuten bizikidetza-unitateen multzoa, berriz, % 46tik % 73ra igaro zen denbora-tarte berean^[24].

2021ean Espainiako Estatuan etxebizitza bat jabetzan zuten biztanleen ondarea 395.500 eurokoa zela kalkulatzen da batez beste. Horren arabera, hipotekarik ez duten jabeek estatuko «% 20 aberatsena» osatuko lukete. Hala ere, errealitatera gehiago hurbiltzen da balio ertaina, 200.800 eurotan finkatzen baitu etxea ordaindu dutenen aberastasuna. Higiezina hipotekatuta badago, ondarea 114.800 eurotara jaisten da. Arrakala are handiagoa da alokairuan bizi direnen kasuan, 6.100 eurokoa baita haien batez besteko aberastasuna. Jabedunen ondarea maizterrena baino 33 bider handiagoa da Espainiako Estatuan; zehazki, Europako batez bestekoa baino zortzi puntu handiagoa da^[25].

Zer esan nahi dugu honekin guztiarekin? Bada, klase ertainak azken karta bat daukala mahukapean gorde-ta: higiezin familiarrek proletarizazioa leuntzeko *koltxoi* modura funtzionatu izan dute orain arte, eta rol berbera joka dezakete pentsio publikoen endekapenaren aurrean. Ez dago zalantzarik, 2008tik hona higiezin salmentak edota alokairuak estutasunetik atera izan du bat baino gehiago. Horrek, klase ertainaren erreproduktzio sozialaren etete orokorrekin batera, egungo jabetza-egituraren eragin du, eta azken hamarkadetakoa zifra astronomikoak higitzen dituzte. Errepara diezaiégun tendentziei: etxebizitzak jabeen ehunekoa 2010ean % 79,8 izatetik 2020an % 75,1 izatera igaro da, hau da, hamar-kada bakarrean 4,7 puntu gutxiago izatera. Ondorioz, Europar Batasunean azken hamar urteotan etxejabe gehien galdu dituen hirugarren estatua izan da Espainia^[26].

Halere, % 75,1 zifra potoloa da, eta horregatik espero daiteke jabetzako etxebizitzek zein bestelako higiezin gaitasuna izatea pentsioak kaskartzeak eragindako proletarizazioa hein batean xurgatzeko. Baina horrek ez du proletarizaziorako joera orokorra bere horretan ezeztatzen; alderantziz, epe luzean okertu egin dezake. Europako Batzordeko Ikerketa Zentro Bateratuko kide den Guillem Vidalek azaltzen duenez, «familiarren laguntzarik gabe, ia ezinezkoa da pisu bat erostea», are gehiago, «soldata ona izanda ere, etxebizitza bat erosteko ondare oso bat metatu beharko zenuke»^[27]. Hemen dago koxka, beraz: zer gertatuko da etxebizitzaren oinarritutako aberastasuna belau-naldiz belaualdi transmititzeko eredu espainiarrarekin, baldin eta zahartzarora heltzen diren ertain klaseak beren etxebizitzak saltzen hasten badira proletarizazioa saihesteko? Posible da metatutako aberastasun familiarraren transmisio hori progresiboki eteten joatea, eta horrek hurrengo belaunaldien baldintza sozioekonomikoak are gehiago okertzea.





Behinola bizi-baldintzak hobetzeko edota mantentzeko izan zuten funtzioa deuseztatuta, izaera asistentzial markatuagoa hartuko dute

España 2050 gobernu-txostenean aipatzen denez, belaunaldi arteko desberdintasun ekonomikoa handitzen ari da Espainiako Estatuan. 1999-2015 al-dian, 65 urteko pertsonen batez beste-ko aberastasuna 35 urtekoen bikoitza zen. Gaur egun, berriz, 65 urtekoek 35 urtekoek baino bost aldiz aberastasun handiagoa dute. Belaunaldien arteko tarte hori «ekonomia aurreratu» deritzoten horietan «ohikoa» dela dio Espainiako Gobernuak. Hala ere, aitortu egiten du Espainiako Estatuan bizkortu egin dela, desberdintasun sozial ikaragarriak dituzten herrialdeen pare, Amerikako Estatu Batuak, esate baterako^[28].

ONDORIO POLITIKOAK

Datozen urteetan estatua langile-riaren gutxieneko erreprodukzio miserablea bermatuko duten zerbitzu eskas batzuk kudeatzera mugatuko da pentsioen arloan ere, bestelako soldata-formetan espero den moduan. Behinola bizi-baldintzak hobetzeko edota mantentzeko izan zuten funtzioa deuseztatuta, izaera asistentzial markatua goa hartuko dute.

Ezkertiar askok kontrakoa uste duten arren, pentsio publikoak ez dira politikari trakets zein ustelek «gaizki» kudeatu dituztelako kaskartu. Aztertutako murrizketek badute beren barne-logika, hau da, ez dira erabat irrazionalak izan. Pentsio-sistema publikoaren epe luzeko bideragarritasun finantzarioa zalantzarria da, gabezia estruktural espezifikoak dituelako eta krisian den kapitalismoak ez duelako langile pentsiodunen bizi-baldintzak hobetuko dituen kontrarreformarako tarte handirik onartzen.

Hauteskundeetako parte-hartzea helduenen artean kontzentratzen dela jakinda, datozen urteetan pentsioena auzi bereziki sentikorra izango da alderdi instituzionalentzat

Diru-partiden faltak politika instituzionalean eragiten duen blokeoa, bestalde, ez du kaleko *Mobilizazio Handi* batek behartuko. Krisi aurreko baldintza sozioekonomikoak berrezarriko dituen *D eguna* ez da inoiz iritsiko, eta Madrilen edonork gobernatzen duela ere, pentsioek okerrera egitea espero da, honezkero ikusi dugun moduan. Zentzu horretan, erreformak kaleetan zalaparta handiegirik piztu ez izanak proletalgoaren independentzia ideologiko eta politikoaren auzia pentsatzera garamatza. Sozialdemokraziak masha-mugimendu espontaneoetan duen hegemonia ideologiko eta politikoa horren da handia, ezen Moncloan ezkerreko koalizioa egote hutsak *de facto* blokeatzen baititu protesta-ziklo gogorak, langile klasearen bizi-baldintzen aurkako ofentsiba gordinaren erdian. Argi eta garbi ikusten da burgesiaren ezker hegala parlamentarioak aise kapitalizatzen dituela *herritar haserretuen* mobilizazioak, baita pentsioen auzian ere. M15etik hona, eskuinaren aurkako hauteskunde-lehiak elikatzeke eta ezkerrearen hauteskunde-programak zilegiztatzeko eraginkortasuna erakutsi dute gisa horretako protestek, baina ez askoz gehiago^[29].

Partida ez da amaitu, ordea; historiak aurrera darrai. Bizi dugun krisialdiak inoiz ez bezala kolpatu ditzake Europako Ongizate Estatuetan proletarizaziotik salbuetsiango ziruditen adin-segmentu helduenetako geruza zabalak. Arrakala soziala handituz doa, eta programa sozialdemokraten ekintza-marjina pentsioen frontetik estutzen ikusiko dugu. Hauteskundeetako parte-hartzea helduenen artean kontzentratzen dela jakinda, datozen urteetan pentsioena auzi bereziki sentikorra izango da alderdi instituzionalentzat. Hauteskunde-programa bilakatutako gezur irrigarrien zerrenda luzeak eta hitzmate faltsu bezainbeste hitz-jate ikusiko ditugu, dena hauteskunde-oinarrian galera esanguratsuak saihesteko. Posible da horrek politika instituzionalarekiko atxikipen falta areagotzea eta interbentzio iraultzaile-rako baldintza subjektiboak zertxobait hobetzea. Hala ere, ezin da bistatik galdu etsipen despolitizatuaren edota forma desberdinetako erreakzio nostalgikoen arriskua ere gainera datorkigula, miseria material, etiko zein politiko ziurraz gain. Edonola ere, borrokarako grinez begira diezaiogun etorkizunari, aurrean ditugun erronkek adin guztietako adimen, indar eta giharrak eskatuko baitituzte. ●

ERREFERENTZIAK ETA OHARRAK

1 Espainiako Estatuko egitura produktiboaren ezaugarrietan sakontzeko, ikus Francisco Javier Murillor Arroyoren *Análisis marxista del milagro económico español (1994-2007): dinámica salarial e impacto sobre la estructura de la propiedad*. Madrilgo Complutense Unibertsitatea. Madril, 2016. 10. kapitulua.

2 *Ibidem*. 9. kapitulua,

3 Bou, L. *Niño Becerra desmonta la política de pensiones de Sánchez: «La recaudación caerá»* (2021eko azaroaren 5a) elnacional.cat.

4 Instituto Nacional de Estadística. *Indicadores de Estructura de la Población. Resultados por provincias. Proporción de personas mayores de cierta edad por provincia*.

5 Mapfre. *Número de jubilados respecto a trabajadores*. jubilacionypension.com

6 Baños, P. *El dominio mundial: Elementos del poder y claves geopolíticas*. Ariel. Bartzelona, 2018. 211.orr.

7 *Baby boom* belaunaldia deritzo, Espainiako Estatuaren kasuan, XX. mendeko 50eko hamarka amaieratik 70eko hamarkada amaierara bitartean jaiotako biztanleria-multzoari. Frankismoak gerraosteko krisia gainditu, industrializazio-prozesua abiatu, harreman komertzialak egonkortu eta turismoaren ateak zabaltu zituenean, horrek 14 milioi inguruko hazkunde demografikoa ahalbidetu ziola kalkulatu da.

8 Radomski, A. *La reforma proletariotzaren bizi baldintzen aurkako ofentsibaren markoan: azterketa kritikoa* (2022ko otsailaren 10a). gedar.eus.

9 Público. *La caída en picado de la hucha de las pensiones con Rajoy: de los más de 66.000 millones en 2011 a los 2.000 en 2021* (2021eko azaroaren 3a). publico.es

10 del Rosal, M. *The Debate on Pension Systems: The Paradigmatic Cases of Chile and Spain*. American Journal of Economics and Sociology, Vol. 78, No.1. 2019. 211-214.orr.

11 *Ibidem*. 210.orr.

12 GEDAR LANGILE KAZETA. *Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak «iruzurtzat» jo du Espainiako Gobernuaren pentsioen erreforma* (2022ko otsailaren 1a). gedar.eus.

13 Sanchez, A. *La inflación escala en febrero al 7,6 %, dos décimas más de lo previsto, mientras la guerra en Ucrania alienta nuevas subidas de precios* (2022ko martxoaren 11). elpais.com.

14 del Rosal, M. *The Debate on Pension Systems: The Paradigmatic Cases of Chile and Spain*. American Journal of Economics and Sociology, Vol. 78, No.1. 2019. 213-214.orr.

15 Organization for Economic Development and Cooperation (OECD). (2007). *Figure 4: Trends in Autonomous Pension Funds' Assets Relative to the Size of the Economy in OECD Countries, 2001-2006.*» *Pension Markets in Focus Issue 4*. (2017). «Table 1. Total Investment of Pension Funds and All Retirement Vehicles, 2016.» *Pension Markets in Focus*. (2020) Table 1. Assets in pension funds and all retirement savings vehicles in 2020 (preliminary). oecd.org

16 del Rosal, M. *The Debate on Pension Systems: The Paradigmatic Cases of Chile and Spain*. American Journal of Economics and Sociology, Vol. 78, No.1. 2019. 214.orr.

17 European Commission. *Crecimiento, competitividad, empleo: retos y pistas para entrar en el siglo XXI*. Fundación Galicia-Europa. Santiago, 1994. 85.orr.

18 Niño-Becerra, S. *Más allá del crash, Apuntes para una crisis*. Debolsillo. Bartzelona, 2012. 23-24.orr.

19 GEDAR LANGILE KAZETA. *Bizitzaren garestitzea, zenbakitan* (2022ko martxoaren 11). gedar.eus

20 European Commission. *Annex to the Commission Decision approving the Operational Arrangements between the Commission and Spain pursuant to Regulation (EU) 2021/241*. Brusela, 2021. 315.orr.

21 Bartolome, M. *Europar ekonomia politiko berriari buruzko zenbait ohar* (2022ko otsailaren 25a). gedar.eus.

22 Rodríguez, E. *El efecto clase media, crítica y crisis de la paz social*. Traficantes de sueños. Madril, 2022. 129. orr.

23 *Ibidem*, 130. orr.

24 Instituto Nacional de Estadística. *Censos de población y viviendas*. Emmanuel Rodríguezek aipatua, *El efecto clase media, crítica y crisis de la paz social-en*. Traficantes de sueños. 133.orr.

25 Ley, M. *Vivir de alquiler o tener casa: así es la brecha de la desigualdad en España y Europa* (2021eko urriaren 11). elconfidencial.com.

26 Eurostat. *que.es atariak aipatua El porcentaje de propietarios de vivienda en España se reduce en la última década-n* (2022ko urtarrilaren 2a). que.es

27 Ley, M. *Vivir de alquiler o tener casa: así es la brecha de la desigualdad en España y Europa* (2021eko urriaren 11). elconfidencial.com.

28 Oficina Nacional de Prospectiva y Estrategia del Gobierno de España (coord.). *España 2050: Fundamentos y propuestas para una Estrategia Nacional de Largo Plazo*. Ministerio de la Presidencia. Madril, 2021. 327.orr.

29 M15 mugimenduaren eta horren kapitalizazio elektoralaren inguruan sakontzeko, Emmanuel Rodríguezek *La política en el ocaso de la clase media: El ciclo 15M-Podemos*. Traficantes de sueños. Madril, 2017.

BIBLIOGRAFIA

Arrizabalo, X., del Rosal, M. & Murillo, F. J. *The Debate on Pension Systems: The Paradigmatic Cases of Chile and Spain*. American Journal of Economics and Sociology, Vol. 78, No.1. 2019.

Bartolome, M. *Europar ekonomia politiko berriari buruzko zenbait ohar* (2022ko otsailaren 25a). gedar.eus.

Rodríguez, E. *El efecto clase media, crítica y crisis de la paz social*. Traficantes de sueños. Madril, 2022.

Rodríguez, E. *La política en el ocaso de la clase media: El ciclo 15M-Podemos*. Traficantes de sueños. Madril, 2017.

Kolitza. *Aurrekaririk gabeko krisi baten gaineko apunte ekonomikoak*. (2020ko azaroaren 16a). gedar.eus.

Murillo, F. J. *Análisis marxista del milagro económico español (1994-2007): dinámica salarial e impacto sobre la estructura de la propiedad*. Madrilgo Complutense Unibertsitatea. Madril, 2017.

Niño-Becerra, S. *Capitalismo 1679-2065, Una aproximación al sistema económico que ha producido más prosperidad y desigualdad en el mundo*. Ariel. Bartzelona, 2020.

Niño-Becerra, S. *Más allá del crash, Apuntes para una crisis*. Debolsillo. Bartzelona, 2012.

Radomski, A. *Lan erreforma proletariotzaren bizi baldintzen aurkako ofentsibaren markoan: azterketa kritikoa* (2022ko otsailaren 10a). gedar.eus.

LAN ERREFORMA proletariotzaren bizi baldintzen aurkako ofentsibaren markoan: azterketa kritikoa



Testua — **Adam Radomski**

Irudia — **Zoe Martikorena**



**«Berrogeita hamar
solairuko eraikin batetik
erortzen ari den gizon baten
istorioa da. Airean doala,
honako hau esaten dio
bere buruari, lasaitzeko:
orain arte dena ongi doa»**

— La Haine



Lan erreforma bat ez da berriketarako kontua. Azken finean, hurrengo urteetan indarrean egongo den *lan-arloko lege-markoa aldatzeaz* ari gara. Egia da erreforma hori zehaztuz joango dela, eta aldaketak jasan ditzakeela, adibidez, Auzitegi Gorenaren epaien bidez, baina horrek ez du aldatzen oso gertaera garrantzitsua dugula aurrean.

2022ko otsailaren 10ean GEDAR.EUS webgunean argitaratutako testuaren bigarren edizioa. Hainbat akats zuzendu dira eta albisteen hipertestekak kendu dira irakurketa errazteko.

Hala eta guztiz ere, lan erreformak koiunturaren arabera araudia- ren egokitzapen gisa ulertu behar- ko lirатеke eta, zehazkiago, Kapitala- ren premien arabera. Beraz, ezin da erreforma hau mugimendu independente gisa hartu, ezin baitira bere inplikazioak soilik BOEa irakurriz atzeman, baizik eta, frogatzen saiatuko naizenez, langile-klasearen bizi-baldintzen aurkako erasoaldi burgesaren erabateko logikaren zati bat da, hazkunde-tasa geldiei bultzada berri bat emate- ko asmoz; beraz, sakonera falta duela salatzea gai- nazalean geratzeko da. Eraso horren barruan sartzen dira beste pieza batzuk, hala nola pentsioen erre- forma edo erreforma fiskala (artikulu honetan ez dugu hori jorratuko). Azken batean, ez da nahikoa erreforma aztertzea; aitzitik, koiunturaren koadro orokorrarekin loturak ezarri behar dira, haren be- netako inplikazioak, motibazioak eta funtzionalta- sunak ulertu ahal izateko, askotan ezkutuan egoten baitira. Horra hor artikuluko honen zergatia.

Lehenik, politika profesionalaren azpijokoak errebasatuko ditugu, erabaki batzuen zergatia uler- tzeko. Ondoren, edukia interpretatzeko abiapuntu den koiuntura zein den azalduko dugu, eta, zehazki, erreformak Europako funtsekin eta Europako Ba- tzordearen gomendioekin duen harremana. Azke- nik, puntu garrantzitsuenetako batzuen azterketa teknikoagoa egingo dugu, zenbaterainoko garran- tzia duten ikusi, eta erreforma honen ezaugarri politiko orokorrekin amaitzeko. Testuaren azken lerroetan, ondorio politiko batzuk emango dira.

POLITIKA PARLAMENTARIOAREN DANTZA

Denetarik esan da gure azken erreformaren ha- rira: Yolanda Diazek, garaipen doinuarekin, «*lan duinaren* aldeko eskubideak berreskuratzen dituen lan-arloko legeria berri» gisa ezaugarritzen zuen (bere hitz zehatzak: «nueva legislación laboral que recupera derechos en favor del *trabajo decente*»). Bere epigono neo-laboristen laudorioak ere ez zi- ren falta izan; Daniel Bernabek zioenez, «2021eko lan-legeria berria joera aldaketa bat da, eta ez soilik 2012koarekin alderatuz, erreforma hitza kapitala- lana gatazka lehenengoaren alde desorekatzeko eu- femismo bat besterik ez zen hamarkaden aldean ere bai».

Lan erreformak koiunturaren arabera araudia- ren egokitzapen gisa ulertu behar- ko lirатеke eta, zehazkiago, Kapitala- ren premien arabera

Era berean, azken horrek erreformak sorrarazi duen eszeptizismoaren aurka egiten zuen, hona- ko hau esanez: «Lan erreforma hau ez da ezeren amaiera, *kontratu sozial* berri bat bilatzeko hasiera baizik». Eta noski, *kontratu sozialaren* gaia hobe- to ulertzen da Yolanda beste elkarrizketa batean esandakoarekin, non erreforma *win-win* gisa in- terpretatzen zuen patronalarentzat eta langileen- tzat (posible al da horrelako zerbait?). Laburbilduz, badirudi Bigarren Mundu Gerra osteko urteetako ispiluan begiratu nahi dutela, pandemia berria ge- rra zaharra bailitzan, Gobernuaren planak Europa berreskuratze- ko planekin parekatuz. Alabaina, Eu- ropako funtsak ez dira Marshall Plana, Mario del Rosalek zioen bezala^[1], eta egungo baldintza eko- nomikoak ez dira itun sozial horretara itzultzeko modukoak; erretorika hutsa da.

Hain zuzen, patronal handia (CEOE) ados ze- goen *itun sozial* bat bilatzeak ekarri dionarekin. Ho- rregatik zioen CEOEko presidenteordeak «PPren 2012ko lan erreforma % 95ean mantentzen dela», eta Garamendi presidenteak «aurreko erreforma- ren funtsa ez dela ukitzen». Dena den, badirudi patronala ere ez dela guztiz homogeneoa; izan ere, Enpresa Txiki eta Ertainen Espainiako Konfedera- zio-ko (CEPYME) presidentea ez dago ados, azpi- kontratazioan egindako aldaketek «enpresa txiki eta ertainak desagertzea» ekarriko luketelako.

Espainiako Gobernuaren inbestidura-blokeak arrakala-zantzuak erakutsi zituen; baina hori bai, alarma-estatua luzatu ondotik, Estatuaren aurrekontuak aurrera atera ondoren, eta bidean, Europako funtsak ere babestuz eta sustatuz

Merezi du, halaber, inbestidura-blokean dauden tirabirak aipatzea, «historiako gobernu aurrerakoiak» zer jokabide izaten dituen ikusteko. Nahiz eta, badirudien bazkideek askotan barkatu dituztela jokabide horiek, komeni izan zaienaren arabera. Lehenik, 2019 amaieran, PSOEek eta Podemosek gobernu akordioa lortu zuten. Dokumentu horretako 3. orrialdean honako hau irakur daiteke: «Lan erreforma indargabetuko dugu. 2012ko lan erreformak kendutako lan-eskubideak berreskuratuko ditugu». 2020ko maiatzaren 20an, PSOEek, EH Bilduk eta Podemosek Alarma Egoera luzatzeko akordioa iragarri zuten. Horretan, EH Bilduk operazio hori ez oztopatzeko konpromisoa hartu zuen. Halaber, 2012ko lan erreforma «osorik» eta «ezohiko neurriak amaitu baino lehen» indargabetzeko konpromisoa jasotzen zuen klausula bat ere jaso zen. Hala ere, sinatu eta ordu batzuetara, egun horretan bertan, PSOE atzera egin zuen; jada ez zuen lan erreforma «osorik» indargabetuko. Gogora dezagun Bernabe eta Diazek aipatzen zuten *itun sozialaren* gaia, azken batean patronala gehiegi ez molestatzeari baitakar. Baina deklarazioen dantza eroak are perla gehiago utzi zituen; 2021eko urrian, Yolanda Diazek CCOOren kongresuan adierazi zuen «lan erreforma indargabetu» egingo zuela «erresistentzia guztiak gorabehera», eta egun batzuk geroago azaldu zuen teknikoki ezinezkoa zela hori egitea.

Eta, azkenean, iritsi gara garrantzitsuenera. 2021eko abenduaren 28an Lan erreforma Lege Dekretu gisa aldarrikatu zen^[2]. PP, VOX, C's, EAJ, ERC eta EH Bilduk kontra bozkatu zuten Diputatuen Kongresuan. ERC eta EH Bildu, gobernuaren bazkideak, (eta PP oposiziotik) haserre agertu ziren



mugimendu horrekin, eta lege-proiektu gisa tramitatzea eskatu zuten, zuzenketak sartu ahal izateko. Gertaera horren ostean, Espainiako Gobernuaren inbestidura-blokeak arrakala-zantzuak erakutsi zituen; baina hori bai, alarma-estatua luzatu ondorekin, argi eta garbi nahikoa ez den gizarte-ekzutu bat luzatzearen truke, eta bidean Europako funtsak ere babestuz eta sustatuz^[3]. Ez dezagun ahaztu ezezkoaren aurretik baieztatu asko izan zirela.


Bien bitartean, 2021eko abenduaren 31n, erreformaren edukia argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE), eta martxoaren 30era arteko epea eman zen enpresak horretara egokitzeko. Estatuko Aldizkari Ofizialaren argitalpenetik, Gobernuak 30 egun baliodun zituen parlamentuko taldeekin negoziatzeko. Talde horiek Kongresuko osoko bil-

kuran baliozkotzea bozkatuko zuten (edo ez), lege-dekretua indargabetu ez zedin.

Une horretan areagotu egin zen negoziazioen dantza, aldeko boto kopuru nahikoa lortzeko. Negoziazioak berotu egin ziren, eta irtenbide kontrajarriak espero ziren: alde batetik, aurrera jarraitzea Ciudadanosen babesarekin, zeinak ados baitzeuden lege-dekretuarekin, zegoen bezala (PSOErekin egindako gobernu-itunaren izpiritua jarraitzen baitzuen, baina azkenean ez zen izan), eta, bestetik, gobernu-bazkideei kontzesioak egin behar izatea. 2022ko urtarrilaren 27an, ERCK, EH Bilduk, CUPEk eta BNGk adierazpen bat sinatu zuten elkarrekin, «erreformaren eskubideak berreskuratzeko». Adierazpen horretan, euren eskaerak azaldu zituzten, pilota PSOEren teilatuan utzita. Gobernuko alderdia, ordea, ez zegoen amore emateko prest, kontuan hartuta, gainera, CEOEk «koma bakar bat ere ez aldatzeko» esaten jarraitzen zuela. Yolanda Diaz bera ere ordenara deitu behar izan zuen Sanchezek, eskaini zitekeena baino gehiago ez hitzemateko. Denbora estutzen ari zen, ERC bandan ixten ari zen eta EAJri kontzesio bat egin zitzaion Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren transferentziarekin, aspalditik eskatzen ari zena. Ez zuen balio izan. Azkenik, otsailaren 3an, ostegunean, bozkatu zen Kongresuan. Eguna emozio askokoa izan zen, izan ere, onarpena boto margen oso estu baten mende zegoen. Erokeria hartan sustoak, alderdi diziplinaren hausturak eta «akatsak» izan ziren, eta aldeko 175 botorekin eta kontrako 174rekin amaitu zen.

ERREFORMA ETA EUROPAR FUNTSEN BALDINTZAPEKOTASUNA: MALGUTASUN GEHIAGO ETA BEHIN- BEHINEKOTASUN GUTXIAGO?, MODERNIZAZIOAREN ERRELATOA

Gauzak horrela, zarata mediatikoa gorabehera, eta agenteen borondatea –edo borondaterik eza–, marra gorri batzuk daude, eta marra horiek zer den posible zehazten dute; lan erreformari lotutako Bruselaren gomendioez eta Europako funtsen baldintzapekotasunaz ari gara. Hau da, funtsen eskuragarritasuna bermatzeko beharrezkoa da^[4] erreformaren edukia Bruselan baliozkotu ziren il-do nagusiekin bat etortzea, eta lan erreformarako ezarritako epeak betetzea. Gerora aldaketa garrantzitsuak egiten badira edo epeak betetzen ez badira, diru-transferentziak ezeztatu ahal izango dira. Bestela esanda, Europako Batzordeak ahalmena du erreformak atzera botatzeko, nahiz eta aurretik oniritzia eman zaien. Horregatik, erreformaren eduki eskasa, batzuek dioten bezala, ezin da gal-



Behin «anfetaminen» eragina igarota, plana betetzea lortu ez bada, arazo larriak etorriko dira; zor handiagoa eta honi lotutako «zerga-finkapen» aringarria, hau da, austeritatea

gutako aukera huts gisa azaldu, hobetzeko tarteaz uzten zuen indar-korrelazioen ikuspegi batetik; aitzitik, ez bairik gabe, kontua Espainiako politikako agenteen interesetatik haratago doa.

Hain zuzen ere, hori da lan erreformaren garrantzia ulertzeko beste gakoetako bat; izan ere, krisitik irteteak eta espainiar Kapitalaren posizionamenduak proiektatzen duten modernizazioaren^[5] kontakizunak, funtsen «txutea» dute ardatz; ondo dakite erabakitzen dena Espainiak nazioarteko lan-banaketan duen lekua dela. Horrela, «anfetamina» horiekin, Espainiar Estatuaren Kapitalaren inbertsioa sustatu beharko litzateke, funtsean, Gobernuaren mugimenduek adierazten dute inbertsioa eta garapen kapitalistaren eredu bidera ditzaizketela eta ekonomia suspertzeko irabaziak (kapitalistak) suspertu behar direla uste dutela, Brais Fernandezek^[6] azaldu duen bezala. Hori koherentea da Garamendiren (CEOE) adierazpenarekin: erreformarekin «irudi bikaina lortzen dute Europako erakundearen aurrean, baita atzerriko inbertsioaren aurrean ere». Irudi hori ezinbestekoa da, beraz, funtsak jasotzeko, eta horien bidez, atzerriko inbertsioak erakartzeko, horretarako lan-merkatu erakargarri bat aurkeztuz. Izan ere, horrela funtzionatzen du Kapital-inbertsioak; irabazi-tasa erakargarriak dauden lekuetan inbertitzen da, eta inbertsioak behar bezain errentagarriak ez diren lekuetatik kentzen dira.

Hala ere, behin «anfetaminen» eragina igarota, plana betetzea lortu ez bada, arazo larriak etorriko dira; zor handiagoa eta honi lotutako «zerga-finkapen» aringarria, hau da, austeritatea (eta dirudienek, multinazional batzuk atzera egiten ari diren inbertsio potentzialekin). Beste gauza bat da ordurako Gobernuak bere ziklo politikoa agortu izana eta orduan egindakoak besteren batek kudeatu behar izatea. Denborak esango du

Orduan, zein dira gomendioak? Europako Batzarordeak eta OCDEk lan-merkatuko *malgutasunaren eta segurtasunaren* arteko oreka gomendatzen dute. Gainera, behin eta berriz esaten da Espainiak zerbait egin behar zuela bere behin-behinekotasun tasa kronikoekin; Eurostaten konparazioan, 2020ko laugarren hiruhilekoko datuekin, Espainian solda-tapekoen % 24,7 aldi baterakoa zen, europar komunitateko batez bestekoa (% 13,5) baino hamar puntu handiagoa. Baina kontuz, erronka horri aurre egiteko hainbat modu daude: jardunbide honekin ez da behin-behinekotasuna errealki deuseztatzen, baizik eta estatistikoki ezkutatzeko urratsak egin dira. Eta hori, zehazki, malgutasunaren funtzioetako bat da. Hau da, Espainiako Estatuaren kasuan, lan erreforma honen bidez, malgutasuna handitzen da behin-behinekotasuna ezkutatzeko. Geroago, zati teknikoagoan saiaturiko naiz hori azaltzen.

Illo horretatik, zain egon beharko dugu Gobernuaren, *Motxila Austriarraren*^[7] ezarpenerako au-

keraren aurrean, Ongizate Estatua desegiteko estrategiaren baitan. Arlo laboralean, ekimen honek kaleratzearen merkatzean sakondu lezake, berez dituen muga gutxi horiek ere deuseztatuz, behin-behinekoak finkeekin gero eta gehiago parekatuz; behin-behinekotasuna ezkutatzeko malgutasun handiagoa irabaziz, esan bezala. Eta horrek, gainera, merkatu-hobi bat emango die funts hori kudeatzen duten bankuei. Azkenik, nabarmentzekoa da Gizarte Segurantzaren logika hausten duela, presazioak indibidualizatzen baititu.

Baina uler dezagun zer den *malgutasuna*. *Employment Flexibility Index*-en (2020) ezartzen da Espainia dela kontrataziorako zurruntasun handienetakoa duen herrialdeetako bat, aldi baterako kontratuei, haien iraupenari eta loturari buruzko legediaren ondorioz, faktore batzuk izendatzearen. Hala eta guztiz ere, adierazten da «araudiaren zurruntasun» hori ez dela eraginkorra izan behin-behinekotasuna deuseztatzerako orduan. Nolanahi ere, txostenean ondorioztatzen da malgutasuna beharrezkoa dela merkatuen aldaketan aurrean. Aldi berean, beste txosten batek, «Doing Business» (2020) izenekoak, malgutasunaren uszteko onurei buruzko mantra batzuen berri ematen du: produktibitate handiagoa eta enplegu-tasa handiagoak. Orain hobeto uler dezakegu zergatik duen Bruselak obsesioa honekin! Nahiz eta, ikusten genuen bezala, EBk batzuetan bere gomendioak diskurtso publikoetan zehazten ditu, eta ez du beti «soilik» malgutasunaz hitz egiten, baizik eta «orekaz», ondo legoke ikerlan horietan nola definitzen den ikustea.

Orduan, nola lortzen da, *Employment Flexibility Index* delakoaren arabera, lortu beharko genukeen malgutasun hori? Har ditzagun adibide gisa indize horretan puntuaziorik onena lortu duten herrialdeak: legeak ez du zehazten iraupen mugatuko lan-kontratu baten gehieneko iraupena, ez dago gutxieneko soldatarik, ez da gaueko lanik, ordu estrarik eta egun liberik murrizten, *ez da araudi zorrotzik, kosturik edo murrizketarik ezartzen kaleratzeen inguruan* (sic!). Ez dago bitartekoei jakinarazteko betebeharririk langile bat edo langile-talde bat kaleratuko denean, eta kaleratzeak egiteko ez da beharrezkoa hauen oniritzia izatea (hemen sindikatuak ari gara). Legeak ez du enpresaburua behartzen langilea kaleratzearen aurretik berriz prestatzera, eta ez dago lehentasunezko legerik kaleratze-kasuetan. Egia da ezin ditugula azterketa horiek EBren bertsio ofizialtzat hartu, baina, agian, *Think Tanks* azterketa horien bidez nora goazen uler dezakegu.

LAN ERREFORMAREN EDUKIA

Lehenik eta behin, jakinarazi behar dut artikulua idazten ari nintzela, 2021eko urtarrilean, aldaketa batzuk izan direla BOEn argitaratutakoarekiko, alderdi politikoen arteko negoziazioak alde batera utzita. Antza denez, ez dira funtsezkoak, akatsak baitira, eta, beraz, ez dira kontuan hartu. Era berean, ditudan gaitasun mugatuak direla eta, abenduaren 28an BOEn argitaratu zenari erreparatu behar izan diot, eta tarte txikiagoa izan dut onartutako azken dokumentuko aldaketetan sartzeko.

Banan-banan komentatu beharrean, hainbat bloketan multzokatu ditugu aldaketak. Espazio eta irakurlearen erosotasun kontuengatik, alderdi txikiak alde batera utzi ditut, nire ustez erreformaren edukiaren interpretazio triunfalistik eta azaleko kritikak baieztatu edo gezurtatzeko pisurik handiena duten alderdietan zentratuz.

Behin-behinekotasuna

Hona hemen puntu nagusietako bat. Lan erreformaren defendatzaileen arabera, erreformak behin-behinekotasunari dagokionez galga lanak egingo lituzke. Horren inguruan zergatik hitz egiten den ulertzeko, egokiena datuei erreparatzea da: Espainia da EBko behin-behinekotasunaren buru. Eurostaten egiten den konparazioan, 2021eko hirugarren hiruhilekoko datuen arabera, Espainiako Estatuko soldatapekoen % 26,1 behin-behinekoa zen, erkidegoko batez bestekoa (% 14,3) baino dezent handiagoa. Baina, abokatu laboralisten arabera, kontratu horien % 90 inguru lege-iruzurrean daude! Ez da alde batera utz daitekeen kontu bat.

Hala ere, hori egoera sistemikoa denaren adierazle da. Adibide gisa, egia da Espainiako Estatuak mendekotasun handia duela urte-sasoiko jardueretik (turismoa^[8], ostalaritza^[9]...), baina horrek ez du justifikatzen kontratuen behin-behinekotasuna; izan ere, behin-behinekotasun hori tamaina ezberdinetako enpresa guztietan gertatzen da, eta, nola ez, askotan, lege-iruzurrean oinarrituta. Bestela esanda, pikarokeria eta pirateria egunero oia dira. Hala ere, gogorarazi behar da gauza bat legedia dela eta beste bat balioaren legea; hau da, gizarte honetan benetan agintzen duen legea; enpresaburuen pirateria ez da kontu kontingentea; hau da, ez dago lotuta enpresaburuak hipotetikoki zurrunka eta diziplinatu europarrak izatea aipatu berri den pirateria horrekin, baizik eta lehia kapitalistaren gerran aurrera egiteko modua da, *batez ere enpresa txiki eta ertainetan*. Oroz gain, legezko nahiz legez kanpoko praktikak bete beharreko bi bide dira balioa balorizatze inperatiboarekin.



Behin-behinekotasuna ez da kostuak aurrezteak bakarrik, baizik eta erreserbako armada industrialaren dinamika bat ere bada, funtzionala zaiona soldatak beherantz behartzeko. Horregatik, *soldata-dumpingaz* gain, lan-indar guztia diziplinatzeko funtzioa ere badago

Gainera, behin-behinekotasuna ez da betidanik egon, baizik eta denborarekin normalizatu dugun zer baita; langabezia eta prekarietatea onartu diren bezala. Horrela, 80ko hamarkadan tasak EB-ko beste herrialde batzuen antzekoak ziren, baina 1984ko erreformaren ondorioz izugarri igo ziren. Ez ziren jaitsi 2008ko krisira arte, hori bai, enpleguaren suntsipenaren ondorioz. Sozialdemokrazia europarra, 90eko hamarkadan, 35 orduko lanaldia-ri, soldata sozialei, Enplegu Oso eta abarri buruzko piraeta-diskurtsiboetatik haien abandonura eta *gainpopulazio erlatiboa* onartzera igaro zen (hau da, ekoizpen-aparatuaren soberakina). Baina behin-behinekotasuna ez da kostuak aurretzea bakarrik, baizik eta erreserbako armada industrialaren dinamika bat ere bada, funtzionala zaiona soldatak beherantz behartzeko, Rosa Luxemburg-ek^[10] azaltzen zuen bezala. Horregatik, *soldata-dumpingaz* gain, lan-indar guztia diziplinatzeke funtzioa ere badago.

Baina pasa gaitezen lan erreforman jartzen duenera –eta jartzen ez duenera– (aurreratu dezakegu, egiten duena ez baita nahikoa behin-behinekotasuna mugatzeko). Ohar metodologiko gisa, ezin dugu ahaztu legeek elkarri eragiten diotela, eta, beraz, beti begiratu behar zaio koadro orokorrari; Gobernuak egiten duena, puntuak nabarmenduta bereizita, propaganda hutsa da, ondoren errealitatean betetzen ez dena. Gauza bat BOEa da, eta beste gauza bat lantokietan gertatzen dena.

Egia da handitu egiten direla lege-iruzurreko behin-behineko kontratuen gaineko zigorrak (10.000€-raino), baina horrek ez du esan nahi zigor maximoa automatikoki aplikatuko denik. Era berean, lan-ikuskatzaileen kolektiboak denbora darma ohartarazten ez duela lege-iruzurrari modu eraginkorrean aurre egiteko baliabide nahikorik, nahiz eta algoritmo bat izan horrelako kasuak detektatzeko. Hala ere, zaila egiten da lege hau betearaztea.

Bestalde, lan egindako urteko 33 eguneko kalte-ordain lotsagarriak (gehienez 24 hileko soldatarekin) bere horretan jarraitzen du, PPren 2012ko erreformaren «lorpen» handienetako batekin (2012a baino lehen, PSOEren 2010eko erreformarekin, 45 egun/urteko ziren 42 hilabetera arte). PSOE eta PP urteek aurrera egin ahala jaisten joan diren zifrak dira. Emaizta?: urte horien aurretik kontratatutakoak kaleratzea garestia da oraindik, baina 2010eko eta 2012ko erreformen ondoren sartu de-

na kaleratzea merkea da. Horri bidegabeko kaleratzearen auzia gehitu behar zaio; enpresa batek kaleratzea «gaizki» egin dezake eta zehapen hori bere gain har dezake kalte-ordain gisa, baina kasu askotan horixe da bilatzen duena, operazioaren kostu-onurari dagokionez mesedegarri zaiolako. Are argiago uzteko; finkoen eta behin-behinekoen arteko aldea ez da hain handia *de facto*, bi kasuetan kaleratzea merkea baita. Arau honen edo beste baten idazketa baino gehiago, hura ez betetzeko disuasio eraginkorraren falta da.

Horri gehitu behar zaio tramitazio-soldatak ere ez direla berrezarri. Hori nahiko oharkabea da igaro zen 2012ko erreforman (PP), nahiz eta 2002an greba orokorra eragin. Laburbilduz, enpresak osorik ordaindu behar zituen kaleratutako langileak jaso ez zituen soldatak, iraungitzea gauzatu zenetik eta kaleratzea epai judizial bidez bidegabe edo balio gabetzat jotzen zen arte. Horrela, 2012ko erreformarekin, enpresen arriskuak izugarri murrizten ziren; izan ere, kasu gehienetan, kaleratzeengatik kalte-ordainak ordaintzera behartuko zituen epai bat jaso zezaketean, bazekitena langileari zegokio- la!; aldiz, deuseztasuna lortzea, zailagoa zen. Gaur egun, tramitazio-soldatak salbuespenezko kasu batzuetarako baino ez dira erreserbatzen: bidegabeko kaleratze batean dauden langileen ordezkari baten kasuan, kaleratze baliogabe baten kasuan edo berri ere laneratzeokotan.

Hain zuzen, egiazta dezakegu behin-behinekotasuna ez dagoela kontratuaren mende bakarrik, kaleratzearen erraztasunaren mende baizik. Beraz, lan-indar prekarizatuaren kasuan, txandakakotasun handiarekin, benetako «lan-nomadak», lau txanponengatik hizketan ari gara. Gauza bera langile migratzaileekin, Atzeritarren Legeak eragiten baitie eta B mailan lan egiten baitute; kaleratzea ia doakoa zaie. Horri gehitu behar zaio bide judiziala luza daitekeela, eta prozesuek irauten duten bitartean ez dela diru-sarrerarik jasotzen; horregatik, askotan, langileek behar apen lotsagarriak onartu behar izaten dituzte enpresek berez zor dizkieten kalte-ordainetan, aurrera egin ahal izateko. Era berean, irakurle batek baino gehiagok FOGASA entzuna izango du noizbait; enpresak kaudimengabetzat jotzen duenean bere burua (askotan gertatzen da hori, Espainiako Estatuaren enpresa-kaudimengabeziaren tasa handiak dira eta), Estatuak kalte-ordainak ordainduko ditu.

Langabezia-tasa altuek kapital-inbertsioak uxatzen baitituzte, eta horiek dira Gobernuaren berreskuratze-planaren funtsezko pieza; horregatik zaie garrantzitsua aldizkako kontratu finkoa

Azken batean, zarata asko baina aldaketa gutxi. Aldatu den apurra (zigorrak), eta, batez ere, berrezarri ez dena (kalte-ordain handiagoak, tramitazio-soldatak) mahai gainean jarri ondoren, ondoriozta dezakegu lan erreformak behin-behinekotasunaren arloan planteatzen duena ez dela inola ere nahikoa bertan disuasio-eragina izateko, lege-iruzurrari estuki lotuta baitago. Behin-behinekotasun horrek, gainera, *erreserbako armada industrialaren solda-ta-dumping* gisa jarduten du lanean daudenekiko.

Kontratu modalitateen sinplifikazioa

Gainera, kontratu-modalitateei dagokienaz, Gobernuaren propagandak garaipen handiaren adibidetzat jartzen du kontratu guztiak mugagabeak aurreuposatzen direla orain (LE 15. artikulua). Zinismoaren alardea da hori, legean jasota baitzegoen, 1980tik gutxienez, Langileen Estatutuan (LE). Beste kontu bat da hori ez zela betetzen, zeren, azken finean, lan-legeria sarri paper erre izaten baita; antolatutako langileok gainean ez bagaude, legeak ez dira betetzen.

Lan erreformak aldizkako kontratazio finkoa azpimarratzen du (LE 16. artikulua, aldi baterako kontratazioen txandakatze handia duten enpresentzat modalitate egoki gisa. Batez ere, kontratu mota horri dagokion kasuistika zabaldu da. Hala ere, kontratazio-eredu horrekin lan egin duenak (ni neu, esaterako) badaki horrek langabeziara ziklikoki joatea dakarrela. Adi egon beharko dugu nola lotzen diren aldizkako kontratazio finkoak ETTe-kin (oximoron bat). Ondorioz, kontratatu gabeko aldietan, gure diru-sarrerak SEPEren mende daude, *langabezimalgu* horri esker. Itxurei eta *erreserbako armada industrialari* buruzko auzia berreskuratzen badugu, kontratazio mota honek ziklikoki kalera-tutako langileak estatistikoki ezkututzen laguntzen du, enplegatutzat hartzen baitira. Beraz, langabezia-tasak estatistikek jasotzen dutena baino handiagoak dira. Zergatik? Izan ere, langabezia-tasa altuek kapital-inbertsioak uxatzen baitituzte, eta horiek dira Gobernuaren berreskuratze-planaren funtsezko pieza; horregatik zaie garrantzitsua aldizkako kontratu finkoa.

Aldi baterako kontratuak bi kasutan mantentzen dira: ekoizpenaren inguruabarrak eta bitartekotasuna. Zehaztearren, bajak eta eszedentziak, edo lanaldi murriztuak, eta oporrak betetzeko nahiz eta Auzitegi Gorenaren 2012/06/12ko epaiak, besteak beste, oporrak aldi baterako kontrataziora jotzeko salbuespenezko zirkunstantzia ez zirela zehaztu.

Hala, erreformak produkzioaren zirkunstantziek eragindako kontratuak (iruzurrezkoak ere bai maiz) gehienaz 6 hilabeteko iraupena izatea, ustekabeko zirkunstantziei erantzuten badiete eta, orain, egoerak aurreikusi daitezkeen kasuetan, 90 egun arte, modu ez jarraituan erabiltzea ezartzen du. Hau behin-behinekotasuna mugatzearen antitesia da! Are gehiago, kontratuen iraupena laburragoa izaten da, batez beste 80 egunekoa. Beraz, muga hori alferrikakoa da. Ikusiko da nola erabiltzen den denbora-muga hori; izan ere, baliteke egunak banatzea, adibidez, 180 lanaldi-erditan, urtebetean zehar. Hau hipotesi bat besterik ez da, baina enpresen pikarokeriarentzat zulo bat ireki liteke. Azkenik, aldaera hori oporrak betetzeko erabili ahal izango da hemendik aurrera, eta hori ere oharkabea igaro da.

Obra-amaierako kontratua kendu egin da (salbuespen batzuekin eraikuntzaren sektorean), eta hori ere berrikuntza garrantzitsua da; izan ere, lege-iruzurraren foku garrantzitsua zen. Esaterako, 2019an sinatutako kontratuen % 85 izan ziren, zeina kopuru hori % 40ra jaitsi zen 2021ean, pandemiaren ondorioz. Era berean, kontratu-mota horren bidez azpikontratatzeko aukera mugatzen da, eta hori beste puntu positibo bat da. Baina kontuz, jada epaitegietan aitortutakoa BOEn jartzea besterik ez da izan hau. Alegia, 2020ko abenduaren 29an, Auzitegi Gorenaren epai bat izan zen (1137/2020 doktrina bateratzeko Auzitegi Gorenaren epaia), zeinetan adierazi zen obra- eta zerbitzu-kontratuak ezin zirela kontrata bati lotu besterik gabe, zerbitzuak edo obrak azpikontratatzea enpresaren jardura normalaren parte baita, horrela, lanpostu horiek egiturazkoak eta, beraz, mugagabeak izanik.

Azpikontratazioa

Enpresa nagusiaren (*matriz-enpresaren*) funtzio berdinak egiteko azpikontratazioa debekatzeko planteatu zen, baina asmoa ezerezean geratu da. Aldaketa batzuk positiboak izan daitezke kasu horietan aplikatzen diren hitzarmenei dagokienez; izan ere, erreforma honekin, erreferentzia sektoreko hitzarmena izango da. Hala ere, azpikontratutako enpresen hitzarmen propioa badute (LE 42. artikulua, 6. puntua), enpresakoak^[1] lehentasuna du salbuespen batzuei dagokienez, Langileen Estatutuaren 84. artikulua ezartzen duen bezala: lanaldiak, ordutegiak, oporrak, kontziliazioa, ordu estrak, etab.

Alabaina hori da gaiaren muina; soldata handiago bat (sektorekoa, aldiz) gainerako baldintzen bidez indargabetu daiteke (ordu estrak, txandaketeak, gauekotasuna eta abar jaitsiz). Alde batetik ematen digutena bestetik kentzen digute.

Negoiazio kolektiboa

Negoiazio kolektiboaren puntua da eztabaida gehien piztu duenatariko bat, eta ez da gutxiagorako; izan ere, autonomia-erkidegoan ordezkartza duten baina Estatuko negoziazioetatik kanpo geratzen diren sindikatuen ekintzarako tartea handitzea zen jokoan zegoena, ordezkartza-sistemaren ondorioz. Hori dela eta, «negoiazio kolektiboaren desestatalizazioaren» gaia ERC, EH Bildu, EAJ edo BNG bezalako indar politikoen borroka bide bihurtu zen, «estatuaren izaera plurinazionala» oinarri hartuta, Estatuan dauden «gehiengo sindikalen» berri emanez, Otegi zioen bezala. Dirudenez, hitzarmen autonomikoek estatuko en aldean zuten lehentasuna erreformaren zirriborroetan jaso zen, baina azkenean ezabatu egin zen patronalaren aurrez aurreko oposizioaren ondorioz.

Hala ere, gaiaren egoera erretorikoki aurkezten zena baino konplexuagoa da, bai alde batetik, bai bestetik. Orduan, egia al da estatuko hitzarmenak nagusitzen direla autonomikoen gainetik? Gerta daiteke. Lehenik eta behin, estatuko hitzarmenak aplikatzeko lehentasun desberdinak ezar ditzakete; batzuetan autonomikoa gailentzen da eta beste batzuetan ez. Espainiako Estatuan, hitzarmen autonomiko gehienak eta estatukoak oso ezberdinak dira, eta Euskadin behintzat, sektore nagusiek ez dute hitzarmen autonomiko propioirik. Hala ere, horrek ez du esan nahi Euskal Herria, Galizia edo Katalu-

Negoiazio kolektiboaren puntua da eztabaida gehien piztu duenatariko bat, eta ez da gutxiagorako; izan ere, autonomia-erkidegoan ordezkartza duten baina Estatuko negoziazioetatik kanpo geratzen diren sindikatuen ekintzarako tartea handitzea zen jokoan zegoena

niarentzat etorkizunean lan-hipotesi bat ez denik izango; eremu batzuk irabazteko aukera izango lukete, eta, jakina, beren eragina zabaltzearen aldeko apustua litzateke. Oraingoz, probintzia- eta enpresa-hitzarmenetan irabazten dute, baina ez beti (adibidez, Arabako metaleko hitzarmenik okerrena).

Sektoreko hitzarmenek enpresakoen aldean duten lehentasunari dagokionez, erreformak lehenengoak aplikatzeko lehentasuna ezartzen du soldata-zenbatekoei dagokienez, baina ez gainerako baldintzetan (lanaldia, ordutegiak, ordu estren konpentsazioak eta beste baldintza batzuk). Praktikan, azpikontratekin bezala gertatzen da; soldata-hobekuntzak baldintzen bidez ezeztatu daitezke. Hori ikusteko, Espainiako Estatua batez ere ETEen eta mikroETEen herrialdea da, eta horrek esan nahi du enpresa horien antolaketa kolektiboa txikiagoa izaten dela. Ondorioz, elkarriketa enpresaren eremura mugatzen denean, negoziazio-jarrerak ahulagoak izaten dira.

Azkenik, ultraaktibitatea; puntu hori positiboa da, nahiz eta 2012ko erreformarekiko «deskafeinatu» izan. Ultraaktibitatea berreskuratzeko esan nahi du hitzarmen kolektiboa iraungi zenetik urtebete igaro ondoren hitzarmenak indarrean jarraitzen duela. Dena dela, nahiz eta erreformako berririk onenetakoa izan, Auzitegi Gorenak kasu askotan hitzarmenean aurreikusitako baldintzak indargabetu egiten direla ulertu du, eta, horrela, beraz, langileek hitzarmena indarrean dagoeneko baldintzei soilik eusten diete. Gainera, 2016. eta 2021. urteen artean, sinatutako hitzarmenen % 63,7 aurrez adostutako ultraaktibitatearekin sinatu ziren.

ERE-ak eta ERTE-ak

EREetatik^[12] hasita (LE 51. artikulua), kaleratze kolektiboak egiteko asko erabiltzen zirenak (duela gutxi, bankuen sektorean), lehen hainbat fasean izapidetzen ziren: kontsulten fasea (negoziazioak), administrazio-baimenaren fasea (lan zuzendaritzak^[13] izapideak zaintzen ditu eta prozedura baimentzen du, Lan Ikuskaritzaren nahitaezko txostena izanik) eta ebazpen-fasea (legezko baldintzak betetzen badira). 2012ko lan-erreformaren ondoren (PP), «barra libre» ireki zen, lan zuzendaritzaren bitarteko iragazkia kenduz, eta, beraz, haren aplikazioa erraztuz. Une horretatik aurrera, EREek pasatu behar zuten iragazki bakarra epaileena zen, kaleratzeak objektiboak ziren ala ez erabakitzeko, eta soilik norbaitek inpugnatzen bazituen, hau da, prozesuaren amaieran eta ez prozesuan zehar. Lan erreforma honetan, momenturen batean elementu horren berrikusketa mahai gaineratu bazen ere, zegoen bezala utzi da, CEOren eta Europako Batzordearen bermearekin (markatu ezazue zeuen azalean: *malgutasuna!*). EH Bildu, ERC eta konpainiaren inbestidura azpiblokeek negoziazioaren 2. fasean berriz sartzeko eskatu zuten dagokion lan zuzendaritzaren ikuskaritzapean. Agian, horrela, bereziki neurrigabekoak diren ERE batzuk geldiarazi daitezke, eta hori positiboa litzateke, noski, baina lan zuzendaritza beti gure alde egongo dela onartzea *ilusioak egitea* da.

Arazoa EREak aplikatzeko erraztasunean datza (galerak argudiatuz edo etorkizunean hala izango direla aurreikusten dela argudiatuz), eta horri aurre egiteko zailtasunean ere bai, hilabeteak edo urteak atzeratzen diren epaiekin, enpresa desegin daitekeen bitartean, eta, epaiak hala erabakiz gero, lanera itzultzea eragotziz. Ez dezagun ahaztu, gainera, ez dutela aurkakorik esan, baizik eta mota guztietako sindikatuak praktika horien konplize izan direla, eta negoziazio-fasean sinadura eman



dutela, agian afiliatuentzat baldintza hobeak lor-
tzearen truke, kaleratze-kopuru txikiagoa hitzar-
tzearen truke edo ondorioak leuntzeko beste neurri
batzuen truke. Behin baino gehiagotan esan den be-
zala, sindikatuen zeregina, gero eta gehiago, mise-
riaren kudeatzaileraztearena da.

Bestalde, aldi baterako enplegu-etendura (ER-
TE) handitu egiten da RED mekanismoarekin (LE
47. bis artikulua). Hori da, nire ustez, punturik gar-
rantzitsuenetako bat, eta, misterioz, oharkabean
pasatzen dela dirudi, bai lan erreformaren aurka-
koentzat^[14], bai aldekoentzat. Testuinguruan jar-
tzeko, ERTEak bolbora bezala hedatu ziren pande-
miaren unerik txarrenetan, eta adostasun kritikoa
sortu zuten. Egia da egoera konkretuetan aplika-
tzeko moduetan «eragozpen» batzuk jartzen direla,
baina ez dira zalantzan jartzen termino absolutue-
tan, agian pandemiaren aurkako neurri positibo-
tzat hartzen direlako, epe ertain-luzera benetan
dakartenera sartu gabe. Kasu honetan, Lan-Agin-
taritzaren zeregina «enpresak alegatutako ezin-
besteko kasuak» egiaztatzeraz mugatzen da (LE 47.
artikulua, 5. puntua), hau da, EREak tramitatzea
baino errazagoa da. RED mekanismoak ERTEen
irismen-gaitasuna zabaltzen du eta Ministroen
Kontseilutik aktibatzen da (beraz, aktibazio politi-
koa da). Horrela, erreforma honekin aukera ematen
da ERTEak salbuespenezko zerbait izatetik zerbait
arrunta izatera pasatzeko, RED mekanismoaren
bidez, ezinbestekotzat dauzkagun egoera zabalduz,
adibidez «Osasun publikoa» aipatuz (LE 47. artiku-
lua, 6. puntua) (irakurri: pandemiak).

Aitortu behar da aldaketa batzuk daudela; meta-
tutako langabezia ez da galtzen, eta soldatari dago-
kionez, % 70 jasotzen da, baina Estatuak ordaintzen
jarraitzen du. Bien bitartean, enpresei etendako
langileen Gizarte Segurantzaren zati bat ordaintzea
geratzen zaie, eta hori nahiko merkea da. Gaine-
ra, RED mekanismoak bi modalitate ditu: ziklikoa

(koiuntura makroekonomikoarekin lotutakoa) eta
sektoriala (sektore batzuetan aldaketa iraunkorrak
hautematen direnean). Sektorialen kasuan, enpre-
sek beste lanpostu bat bilatzeko plan bat aurkeztu
beharko dute. Baina, batez ere, azken modalitate
hori jotzen du Santiago Lupek^[15] «etorkizuneko
birmoldaketen aldamio juridikotzat». Baina... Bir-
moldaketak aurreikusten al dira? Noski! Zertarako
ziren Europako funtsak bestela?; digitalizazioa eta
trantsizio ekologikoa.

Ondorioz, enpresen barne-malgutasuna ERTEen
bidez sakontzea benetako *juggernaut* bat da langile
finkoen baldintzen aurka: krisialdiko eta eskaria-
ren fluktuazio testuinguru batean, oso funtziona-
lak dira soldatapeko langileak hanka bat barruan
(beharrezko direnean) eta bestea kanpoan (lan-
karga dagoenean) dutela mantentzeko, finkoak *de
facto* aldi baterako bihurtzen direlarik (malguta-
sun bedeinkatua!). Era berean, enpresek une jakin
batzuetan aurreztu egiten dute, soldatak Estatuak
ordaintzen baititu. Gogora dezagun zor handia
duen Estatu bat dela (BPGren % 122,28a), eta, be-
raz, Egonkortasun eta Hazkunde Plana berraktiba-
tzen denean, BPGarekiko zorraren % 60ko muga
ezartzea suposatuko du: austeritate-politikak. Bai-
na, gainera, langileak diziplinatzeko eta banatzeko
mekanismo bat dira, kulturalki prestatzen gaitue-
na, aldizkako kontratu finkoak bezala, prestazioak
eta zerbitzuak (pobreentzat) gero eta garrantzitsu-
agoak diren soldata-eredu baterako, zuzeneko solda-
taren kaltetan. Hori da Nafarroako Volkswagenen
edo Gasteizko Mercedesen gertatzen ari dena.



Enpresen barne-malgutasuna ERTEen bidez sakontzea benetako *juggernaut* bat da langile finkoen baldintzen aurka: krisialdiko eta eskariaren fluktuazio testuinguru batean, oso funtzionalak dira soldatapeko langileak hanka bat barruan (beharrezko direnean) eta bestea kanpoan (lan-karga dagoenean) dutela mantentzeko, finkoak *de facto* aldi baterako bihurtzen direlarik

KONTSIDERAZIO POLITIKOAK

Honezkero, lan erreforma honek balorazio negatiboak jaso ditu, kasu gehienetan bere azalekotasuna eta, hasieran aurkeztu zenaren kontrara, 2012ko PPren erreforma «indargabetzeko» gutxiegitasuna azpimarratuz. Eta arrazoia dute, helburua hori bazen, huts egiten du miserableki, aurrekoen eduki kaltegarriak zorrozten eta finkatzen baititu; ez da horrenbeste ezaugarri horiek bere horretan okertzea. Hala ere, horren ondorioz, are zailagoa izango da orain arte lege bidez hitzartutakoa urratzea. Puntu txikiago batzuk aldatuak izan daitezke, eta, hobekuntzak ere izan daitezke (ultraaktibitatea, sektoreko hitzarmenaren lehentasuna subkontraten kasuan), baina, adierazi dugun bezala, kasu askotan, epaitegiek alde aurretik abalatutako edo jada betetzen ziren kontuak jarri dira BOEn. Zalantzarik gabe, patronalaren pikarokeriak, giza baliabideetako sailekin eta aholkularitzekin batera, alderdi positibo horien zirrikituak bilatuko dituela, beti ari baitira eraberritzen prekarietateari dagokionez. Patronala, «galtzeko» prest zegoena arte utzi da, hori bai, horrek ematen zion denbora-abantaila zukutu ondoren. Hona hemen erreformaren azterketa «juridikoa».

Gainera, aurreko bi lan erreformak indargabetzea planteatzen den arren (2012 eta 2010, PP eta PSOE, hurrenez hurren), badirudi ez dela zalantzan jartzen Langileen Estatutuaren lan-esparrua bera. Hori Moncloako Itunen emaitza da, garai hartako helburuei erantzunez: bereziki gatazkatsua zen langile-mugimendu bat otzantzea eta Espainiako kapitala Europako bloke politiko-ekonomikoaren estandarren arabera modernizatzea. Baliteke egun ez egotea langile-mugimendu indartsu hori, baina bigarren helburua proposamen berrietan nabarmentzen da, eta, beraz, ez da harritzekoa *itun sozialak* berriro aipatzea.

Lan erreforma langile-klasearen bizi-baldintzen aurkako erabateko ofentsiba gisa ulertuta, zatiak beste zentzu bat hartzen hasten dira

Alabaina, goian azaldutako kritikak ez du azaletik haratago begiratu; ez da azalekotik haratago joan, eta, hala eta guztiz ere, ez da kritika erradikala. Aldiz, lan erreforma langile-klasearen bizi-baldintzen aurkako erabateko ofentsiba gisa ulertuta, zatiak beste zentzu bat hartzen hasten dira. Hain zuzen ere, aldi baterako lan-erregulazioak (galerak sozializatzea, etekinak pribatizatzea) eta aldizkako lan-kontratu finkoak (aldi baterakoak finko gisa aurkeztea) bi modu posible dira estatistikoki behin-behinekotasuna malgutasunaren pean ezkutatzeko, bai Europako Batzordeak eskatzen duena betetzeari begira, bai atzerriko kapitalaren inbertsio desiratuari begira. Azken horiek, langabezia-tasa handiekiko mesfidati izan ohi dira. Horrek, kaleratzearen erraztasunarekin batera, denok behin-behinekoak izatea ekar lezake, baita finkoak ere. Horrela, baliteke erreforma berregituraketei dagokionez datorrenaren eremua taxutzen aritzea; Europako funtsak trantsizio ekologikorako, eraldaketa digitalerako eta, azken batean, produkzio-aparatuen egokitzapenerako.

Ongizate Estatua likidatzea ez da «kolore» kontua; kapitalismoaren egiturazko beharrei erantzuten die, desagerpen hori alderdi batek ala besteak kudeatu

Nire ustez, erasoaldia hainbat unetan gerta liteke: epe laburrean, erreforma-paketeak (lan, pensio, zerga). Horiek gure bizi-baldintzen aurkako eraso dira, berehalako helburu desberdinekin: langile-klasearen aurrezkiei kolpe egitea inflazioaren bidez (lan-errentak Kapitalera aldatzea), etekinak handitzea eta soldatei eusteko politikak ezartzea inflazioa soldatetara jauzi ez dadin, burgesiari ematen dion denbora-abantaila bertan behera utziz. Epe labur-ertainean, aurrekoari eta Europako funtsen bultzadari esker, kapital-inbertsioak suspertzen saiatzea, irabazi-tasak altxatzeko itxaropenarekin. Eta, aurrekoaren ondorioz, epe ertain-luzera, «soldata-sistema berri» baterantz jozte, gainpopulazio erlatiboaren geruza zabal bat ezaugarri duena, ekoizpen-aparatu soberakoa modu kronikoan duena, non zuzeneko soldadak (lana) garrantzia galtzen duen, zeharkako diru-sarrerena (prestazioak, DSBE, balizko miseria-errenta uni-bertsalak) eta doako zerbitzuena (beti pobreentzat) igotzen den bitartean. Horregatik, «soldata-sistema» horri bere konplexutasunean erantzun behar-ko zaio, baina hori ez da artikularen gaia. Hori bai, funtsen eragina igarota (urte gutxi batzuk), Espainiako Kapitala ez bada birkokatu, zerga-doikuntzak etorriko dira: murrizketak eta austeritatea. Orain arte «dena ondo doa». Oraindik ez dugu lurra jo.

Ikusitakoak ikusita, gehiegikeria neoliberaletan zentratzen diren kritikak itsu dira muturren aurrean gertatzen diren aldaketen aurrean; Estatua ez da desagertzen, alderantziz! Garrantzia irabazten du, baina funtzio politiko desberdinekin. Erabakiak hartzeko zentroa izan beharrean, eta Ongizate Estatua ahalbidetu zuen oinarri ekonomikoa pixkanaka desegiten ari den honetan, miseriaren asistentzia sozialaren, errepresioaren eta kapitalaren asistentziaren (inbertsioak, azpiegitura, erreskateak) kudeatzaile bihurtzen da, besteak beste. Testuinguru horretan, ezkerrek kudeatzaile trebea izateko gaitasuna erakutsi du; baztertu dituen guztiak gorabehera, Yolanda Diazek jakin izan du erreforma Itun Sozialaren mahaitik eramaten (Gobernua, sindikatu adierazgarrienak eta CEOE), aurreko PPren erreforma ez bezala, aldebakarrekoa izan baitzen. Beraz, Ongizate Estatua likidatzea ez da «kolore» kontua; kapitalismoaren egiturazko beharrei erantzuten die, desagerpen hori alderdi batek ala besteak kudeatu. PSOE (ezkerren babesarekin) proletalgoari eraso egiteko bide *soziala* da, baina azken finean, ez dio eraso izateari uzten. Hori ere ez da berrikuntza historikoa, 80ko hamarkadan bizi izan zen industria-birmoldaketarekin.

Gehiengoaren sindikalismoari dagokionez, CCOO eta UGT ez dira gogaitu negoziatioetara indar handiagoko posizio batekin iristeko. Aitzitik, badirudi ziurtzat jo dutela Gobernuak lan guztia «ondo» egingo zuela; dagoeneko ez dira ahalegintzen euren erabilgarritasuna antzeztan ere. Horren orde, beren «indar sindikalen korrelazioa» kudeatzen dute, joerazko gainbeheran jarraitzen duten bitartean. «Ez da panazea, baina lehen urratsa da», «One step at a time» logika da belaunaldiz belaunaldi eragin-eremua galtzera eramane gaituena. Azken finean, porrotaren logika besterik ez zen pragmatismoz eta «pixkanaka irabazteaz» mozorrotzen zena. Horri dagokionez, Rosa Luxemburgek eman zigun lezioa^[16] garrantzitsua da: «Oportunismoa (...) bi modutan gal daitekeen joko politikoa da: batetik, oinarritzko printzipioak galtzeaz gain, ustezko arrakasta praktikoa ere gal daiteke». Helburuen anbizio eskasak, nahitaez, asmo gutxiko emaitzetarako tartea uzten du.

Lan erreformari emandako erantzun kritikoari dagokionez, ez dira berriro ikusi 2012ko mobilizazio-ziklo eta greba orokor masiboak, nahiz eta edukia antzekoa izan.

Euskal Herrian, zehazki, greba orokorra baztertu zen, LAB eta ELA ez baitziren ados jarri polemiken artean, dinamika bateratuak manifestazio batera eta lantokietako mobilizazio batzuetara murriztuz. Egia da abenduaren 28ra arte ez genuela legearen edukia erabat ezagutzen, baina *a posteriori* emandako erantzuna baino ez da, negoziatioak oso berandu arte baldintzatzen saiatu ez dena, nahiz eta «borrokarako grina» handiagoa eta gaitasun handiagoa izan. Agian zerbait ihes egiten ari zaigu, zaila delako azaltzea aurreko erreformarekin alderatuta izan den jarrera aldaketa. Gaitasuna badago, zergatik ez da benetan erabili? Parlamentuko jardunaz gain, bide «sindikalean» indar gehiago jarri behar al zen, LABeko ahots batzuek *a posteriori* adierazten zuten bezala? Edozein kasutan, erreforma onartuta dago.



Agian, atzealdera zergatik mugitu diren azaltzeko, adierazi behar da sindikalismo «kritikoa» atxikita dagoen parlamentuko apustuek mugatzen dutela maiz. Sindikatuari dagokio nahigabea eta bide parlamentarioak sortzen dituen kontraesanak kudeatzea, azkenean alderdi instituzionalak erabakitzen badu ere. Izan ere, ez luke zentzurik izango alor sindikalean gehiegi aurreratzeak, parlamentuko ezetza oraindik erabakita ez bazegoen; azken finean, kalkulu eta aliantza politikoen kontua da, eta ezin dira edozein modutan arriskuan jarri. Baina kontuz, «kalea» eta instituzioak ez daude elkarren aurka, logika komun batean osatzen dira.

Are gehiago, erreformak lortzeko Espainiako esparrua nahikoa ez zela adierazi nahi zuen estrategia bat bazen, nahasgarria da Gobernu babesten jarraitzea. Bestalde, ez da koherentea «erreformari ez» esatea Europako funtsen alde egiten bada, lehenengo bigarrenerako baldintza izanik. Gauzak horrela, ERCK, EH Bilduk, EAJk eta abarrek ez dituzte eskuak zikindu behar izan *herritarrentzat* gustukoa ez zen erreforma batekin. Berriro diot: baiezko asko egon dira ezezkoaren aurretik: Alarma Estatua luzatzea, Estatuko aurrekontuak eta, bereziki, Europako funtsak.



Egia da abenduaren 28ra arte ez genuela legearen edukia erabat ezagutzen, baina *a posteriori* emandako erantzuna baino ez da, negoziazioak oso berandu arte baldintzatzen saiatu ez dena, nahiz eta «borrokarako grina» handiagoa eta gaitasun handiagoa izan

Uneoro aipatzen ari zena erreformek gaur egungo konfigurazio kapitalistan zuten papera zen, erreformen marjina gero eta txikiagoa den egoera batean

Eta horrek guztiak indar korrelazio ospetsuen eztabaida ekarri du hizpidera, eta ahal denaren politika (Pablo Iglesiasek aitortzen zuen «irits zitekeen urrutiena» zela). Gure herri txikiari dago-kionez, egia da indar sindikalen korrelazio hobe dagoela, eta agian Legebiltzarrean ere bai. Horregatik planteatzen dira Lan Harremanen Euskal Esparrua bezalako proiektuak, baldintza hobeak lor litezkeela argudiatuz. Lehenik eta behin, hori premia hutseko gai baten ondorio da; EHn indar korrelazio hobe da lor daiteke, baina Espainiako esparru handian, euskal gehiengo sindikalak ez du ezer askorik lortzeko, horrela, beren botere sindikala gauzatzeko lekua bilatu behar dute. Hala ere, indar korrelazioa benetan den bezala aurkeztu behar da, beraz, premisa horretatik, zenbateraino jar liteke zalantzan integrazio europarraren esparru politikoa eta horren atzean dagoen Europako Kapital Handia? Izan ere, ez dira gauza bera barne-indarren korrelazioa (lurralde batean; Espainia vs EH) eta kanpo-korrelazioa (Lana vs Kapitala).

Bigarrenik, ulertu behar da proiektu hori estrategia zabalago baten irudikapen taktikoa dela, berehalakoa; Berdinen Errepublikan, Euskal Ongizate Estatua. Horretarako, *gizarte-itun* propioa behar da, eta, beraz, burgesiaren zatiren baten babesa. Eta, nola ez, badirudi ez duela horretarako interesik,

eroso baitago dagoen bezalaxe. Era berean, gure balizko Euskal Lan Harremanen Esparruak Europako «gomendioak» desobedituko balitu, «Euskal oasiaren» Ongizate Estatua posible egingo lukeen oinarri ekonomikoa laminatzea ekarriko luke. Ez aipatzearren, Kapitala gero eta gehiago kontzentratzen ari dela, multinazionalen aurkako bide sindikalari negoziatzeko gaitasuna eta eraginkortasuna kenduz, nolabait deslokalizazioak, berregituraketak eta abarrak ere kontuan hartuta. Erreformaren bide nazionalak ez du ibilbiderik: Espainia ez da erreformatu ezina, kapitalismoa halakoa da. Horregatik da premiazkoa Alderdi Komunisten Internazionala antolatzea, eta horretarako, proletalgora independentzia politikotik abiatuta antolatu behar da, gero eta eskala handiagoan.

Izan ere, uneoro aipatzen ari zena erreformek gaur egungo konfigurazio kapitalistan zuten papera zen, erreformen marjina gero eta txikiagoa den egoera batean. Horregatik ezin diegu erreformei daukatena baino garrantzia gehiago eman, alferrikako ahaleginak eginez. Horregatik, gero eta gehiago, erreformarik gabeko erreformak ikusiko ditugu, lan erreforma honen kasuan bezalaxe. Baina hau ez da porrotaren kantua, kontrakoa baizik. Sozialismoaren beharra dugu, bizitzea merezi duten bizi-baldintza unibertsaletarako berme bakar gisa. Gure ekarpena oso apala da, itxaropena berreskuratzeko galdera egokiak egiten hasi behar da, nahiz eta batzuetan min egiten duen. Aspaldiko lagun batek esan zuen bezala: «Hobe da aldi baterako garaitua zarela onartzea, horrela ez jarraitzea bada asmoa». Proposatzen dugun bidea, Kapitalaren Botereari aurre egingo dion Alderdi Komunisten Internazionala eraikitzea, bide zaila, desatsegina eta oso luzea da, baina ez dago balio duen lasterbiderik; hasieraren hasiera besterik ez da. ●

ERREFERENTZIAK ETA OHARRAK

1 Mario del Rosal. *Los fondos europeos: ¿un nuevo Plan Marshall?*.

2 Gobernuak lege-dekretu bat onar dezake Ministroen Kontseiluan, premiazko kasuetan. Hala ere, indargabetu ez dadin, gehienez 30 egun daude Kongresuan bozkatzeko, Konstituzioaren 86.1 artikulua arabera. Botere-banaketaren printzipioaren salbuespena da, arauak organo legegileak onartzen dituelako, eta ez botere betearazleak, lege-proiektu baten kasuan bezala.

3 Pello Otxandiano. *Fondos europeos como marco de lucha. Estrategia, táctica y praxis política*.

4 Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 araudiak, 2021eko otsailaren 12koak, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duenak, 24. artikuluan (*Finantza-kontribuzioei eta maileguei buruzko ordainketei, eteteari eta akordioen suntsiarazpenari buruzko arauak*) ezartzen du Batzordeak ordainketak etengo dituela estatu kide batek aurretik betetako mugari eta helburuekin lotutako neurriak baliogabetzen dituela egiaztatzen badu.

5 Alberto Garzon: «Modernizazioa gure produkzio-sistema dibertsifikatzea eta konplexutzea helburu duen industria-politikako estrategia gisa defini dezakegu. Jauzi kualitatibo horren helburua Europa iparraldeko herrialdeekiko (...) egiturazko desberdintasunak murriztea da (...). Hemen eztabaidatzen ari garena Espainiak eta, neurri batean, Europar Batasunak lanaren nazioarteko banaketa berrian duten lekua da».

6 Brais Fernández. *Una valoración política sobre la no derogación de la reforma laboral*.

7 2030eko helburuak eta Aldaketaren Agendako neurriak. 64. orrialdea, 12. puntua. Ez da agertzen *Motxila Austria* gisa, baina kaleratze- eta erretiro-kostuak jasango dituen banakako kapitalizazio-funtsaren ideiarekin bat dator.

8 Garrantzitsua den arren, BPGan duen garrantziaren arabera neurtuta, turismoa COVID-19arekin erori edo amildu den sektorea da. Esaterako, 2019tik ia 7 puntu eta 2021eko BPGaren % 5,5 jaitsita.

9 BPGren beste sektore garrantzitsu bat ostalaritza da: BPGren % 6,4 eta 1,7 milioi enplegu.

10 Rosa Luxemburg. *Introducción a la Economía Política, la ley del salario kapitulua, formación del ejército de reserva atala*.

11 Dirudienez gertatzen ari den jokaera da administrazio-langile bat langile gisa jartzea, ordezkari sindikal telegidatu gisa aurkeztea eta oso hitzarmen kaxkar bat «hitzartzea», gero administrazioko jatorrizko lanpostura itzultzeko.

12 Enplegu Erregulazioko Espedienteak: egoera ekonomiko txarrean dagoen enpresa batek langileak eteteko edo kaleratzeko baimena lortzeko prozedura. Izapidetzeak: kontsulten fasea (negoziazioak) eta ebazpen-fasea (lege-baldintzak betetzen badira).

13 Erkidegoka izen ezberdina har dezake. Batzuetan Lan-Zuzendaritza

14 2022ko urtarrilaren 27ko ERC, EH Bildu, CUP eta BNGren adierazpen bateratua, *erreformaren eskubideak berreskuratze*ko.

15 Santiago Lupe. *La reforma laboral ¿hoja de ruta para una nueva reconversión?*

16 Rosa Luxemburg. *El oportunismo y el arte de lo posible*.



Funtsak, baldintzazkotasuna eta krisia: Europar Batasuna mehatxatzen duen ekaitz perfektua

Testua — **Jose Castillo**

Irudia — **Julen Etxegarai eta
Itsasne Ezkerro**





Lan-erreformak, pentsioen erreformak, inflazioa, gerra, moneta-hedapena, zorra, berreskuratze-funtsak, krisiak... Gaur egun komunikabide handiek egunero bonbardatzen gaituzte kontzeptu latzekin eta behar bezalako testuinguruan jartzen ez badira nekez uler ditzakegu.

Egungo erreformak, langile-klasearen bizi-baldintzen debaluazioa eta kapitalaren berregituraketa ulertzeko Europa mailan, horiek zuzentzen dituen erakunde gobernatzaile handienaren oinarri historiko, politiko eta ekonomikoak ulertu behar dira: Europar Batasuna eta harekin lotutako erakundeak.

Europa edo, hobeto esanda, Europar Batasuna (EB) duela hamarkada bat baino gehiagotik etengabeko krisian dago; salbuespenezko politikak bata bestearen atzetik kateatzen ari da, bere proiektu politikoa salbatzeko eta historiako azken 70 urteetan eraikitzen joan den arkitektura batuta eta kohesionatuta mantentzeko, azken helburu batekin: Europa mailan egituratzen den metaketa kapitalistaren eremua gobernatzeko nazioz gairik markoa sortzea. Azken helburu hori oinarri hartuta, eta COVID-19aren krisiaren harira, susperraldirako Europako funtsak deritzenak formulatu dira. Ofizialki *Next Generation EU* izena dute funts horiek, eta finean helburu bera dute, baina egungo egoerara egokituta: Europako kapitalaren ehuna birmoldatzea eta modernizatzea, eremu hori ekonomikoki hirugarren polo estrategikoa gisa txertatzeko AEBen eta Txinaren arteko mundu mailako lehian.

Hala ere, Europar Batasuna beste zerbait da kontakizun ofizialarentzat, bai eta sozialdemokrazia klasikokoaren ezkerreko alderdi askorentzat ere: gerrak ekiditeko eta herrialdeen arteko elkartzasuna eta kohesioa sustatzeko nazioz gairik markoa sortzea. Noski, EBk helburu horiek betetzen ez dituenean

eta bere benetako aurpegia erakusten duenean –adibide paradigmaticoa gisa, Siriako errefuxiatuen krisiari modu eraginkorrean ez erantzutea edo Europako hegoaldeko estatuei austeritate-neurriak ezartzea–, ezker sozialdemokratikak ulertzen ez duen baina bere parte izateari utzi nahi ez dion erakunde bat erreformatzeko aldarria egiten du. Jakina da, ordea, nazio mailako bere erreforma sozialen programa guztia ezinezkoa dela Europako egungo artikulazio politikoa, ez baitago erreforma sozial posiblez gertu eta moneta politikarik gabe, zeinak aspaldi nazioz gairik markoa sortzea batera eraman ziren aurrera EBn^[1].

Gauza bera gertatzen da hainbeste aldarrikatutako Europako berreskuratzeko funtsekin; izan ere, ezker sozialdemokratikak, haren adar independentistak barne, ongizate-estatu debalutuaren erakunde nagusiak berantolatzeak aukera gisa hartu ditu. Funts horiek zerutik erorritako diru moduan ikusten dituzte, eta horien kudeaketa disputan dagoela sinesten dute. Hori guztia EBren nortasunari buruzko fraseologia bikain batez laguntzen dute, eta EBk egungo krisi pandemikoan bere politikaren ikuskerara «sozialagorantz» bira keynesiarra emango duela defendatzen dute, ustez, euroaren krisiaren urte gogorretan (2010-2015) ezarritako austeritate-politiken akatsetatik ikasita. Beste behin ere, ez dituzte ulertzen funts horien diseinua, funtzionaltasuna eta baldintzazkotasuna, funts horiek entregatu aurretik diseinatuta baitzeuden. Horrenbestez, ez dago disputa parlamentario posiblez gertu.



Next Generation EU ibilbide luzeko proiektu politiko baten azken engranajea baino ez da. Proiektu horren helburu nagusia kapitalaren Europa mailako irabazi-tasei bultzada berri bat ematea da, kapital aldakorra debaluatuz; hau da, langile klasearen zuzeneko eta zeharkako soldata eta bizi-baldintzak erasoz

Artikulu honen helburua irakurleari EB, eurogunea eta haren erakunde ekonomiko-politikoaren inguruko oinarrizko ezagutza transmititzea da, Europako funtsak zer diren azaltzen saiatzeko. Izan ere, *Next Generation EU* ibilbide luzeko proiektu politiko baten azken engranajea baino ez da. Proiektu horren helburu nagusia kapitalaren Europa mailako irabazi-tasei bultzada berri bat ematea da, kapital aldakorra debaluatuz; hau da, langile klasearen zuzeneko eta zeharkako soldata eta bizi-baldintzak erasoz.

Ikusteko dago kapitalismo europarrak lortuko ote duen bere depresio luzetik irtetea, edo, alderantziz, bere barne-kontraesanek are gehiago murgilaraziko ote duten krisi-fase berri batean. Gaur egun krisia inflazioak, hedapen kuantitatiboak ekonomian diru artifizialaren injekzio gisa sortzen duen burbuila ekonomikoak eta ekialdeko gerraren ondorioek markatzen dute. Jakina, Ukrainako gerrak EBk pandemiaren salbuespenezko politikak atzean uzteko ezarritako berreskuratzeko-funtsen eta norabide ekonomiko-politikoaren planak aldatzen ditu. Baina EBri krisi orok halako odolustea eragitea, ekonomia- eta gizarte-desorekei dagokionez, bere jarduteko modua-

ren eta barne-arkitekturaren ondorio zuzena da, ez kanpotik datozen eta aurreikusi ezin diren zorigaitzena. Hortaz, EBn txertatutako botere burges europarraren artikulazioa zehatz-mehatz ezagutzea ezinbestekoa da edozein praktika politiko sozialistarako.

ZER DA EUROPAR BATASUNA?

Europako integrazio-prozesua prozesu politiko bat da, historiografia ofizialak estatu kideen batasun federal edo konfederalera –neurri handiagoan edo txikiagoan– hurbiltzen diren integrazio-etapa batzuen bidez azaltzen duena. Prozesu horren hasiera bateko helburu esplizitua, Schumann-en (1950) adierazpen ospetsuak zion bezala, «Europako herrialdeen arteko gerra materialki ezinezko egiteko baldintzak sortzea» zen, bereziki Frantziaren eta Alemaniaren artean. Hortaz, ikatzaren eta altzairuaren merkataritza askea ezarri zen 1951n Ikatzen eta Altzairuaren Europako Erkidegoa (IAEE) eratu zenean, eta 1957an sei herrialdek Europako Ekonomia Erkidegoa (EEE) eratu zuten, kide ziren herrialdeen arteko merkataritza askeko aduana-batasuna zena. Herrialde horiek Frantzia, Alemania, Italia, Belgika, Herbehereak eta Luxenburgo izan ziren.


Hala ere, inozoa litzateke pentsatzea integrazio ekonomikoa helburu politiko normatibo nobleek baino ez zutela sustatu. Gerraostean, Estatu Batuek berebiziko garrantzia izan zuten ekonomikoki integratuta zegoen eta errekuiperatutako Alemania parte zen bloke europarraren sorreran –1953an, gerran pilatutako zorraren erdia baino gehiago barkatu zioten Alemaniari–, merkantzia kopuru izugarria esportatu ahal izateko bertara. Izan ere, garai hartan, Estatu Batuak planetako esportatzailearik handiena ziren eta bere eraginpean egongo zen eremu ekonomiko bat behar zuten. Beraz, integrazio europarraren historiako lehen hamarkadetan, eta hirurogeita hamarreko hamarkadaren amaierara arte behintzat, ezin daiteke burgesia estatubatuarretik autonomoa den burgesia europar bategin hitz egin, bigarrena ekonomikoki eta politikoki lehenengoaren mende baitzegoen^[2].

Prozesu horrekin batera, bigarren gerraosteko lehen hogeitertean, beharrezko baldintza sistemikoak gertatzen dira (mendebaldeko kapitalismoan salbuespenezko irabazi-tasa eta hazkunde ekonomikoa), langile-borroka garrantzitsuekin batera, soldatagoerak eta estatu-laguntzen sare zabala biztanleriaren hainbat geruzatara iristea lortzeko. Ongizate-estatua deitzen zaio horri, eta hainbat forma hartzen ditu, estatuen gaitasunen arabera.

Hala eta guztiz ere, artikulua hau laurogeiko hamarkadaren ondorengo zikloan zentratzen da. Ziklo horretan, kapitalen zirkulazio askerako Europako Agiri Bakuna (1986) sinatu eta Ekonomia eta Diru Batasuna (EDB) sortzen hasi zen, zeinak Europako Banku Zentralak (EBZ) zuzendutako dibisa bakarra ekarri zuen. Funtsean, EDBren sorrerak Europako burgesia gero eta bateratuago baten eraketari erantzuten zion. Izan ere, nazioarteko zenbait gertakariaren ondorioz, Europako burgesia Estatu Batuekiko erdi-autonomoa zen bere bloke propioa instituzionalizatzen hasi zen.

Vietnamgo gerrak, Bretton Woodseko itunen amaierak eta dolarra eta errearen parekotasunean oinarritutako diru-patroiaren eztandak Europako burgesiak eta zuzendaritza politikoak integrazio-prozesuari norabide berri bat ematea eragin zuten. Helburua argia zen: hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera kapitalismoak jasaten zuen krisiari erantzutea. Hamarkada horretan irabazi-tasa okertzen hasi zen, eta horrek, kapitalaren eta nazioarteko erakundearen erreakzioa eragin zuen. Horren adierazpenik nabarmenena irabazi-tasaren jaitsiera arintzera bideratutako egiturazko doikuntza-politikak izan ziren: barne-soldaten debaluazioaren eta ongizate-estatuan instituzionalizatutako zenbait langile-konkistaren pribatizazioa edo zuzeneko deuseztapena^[3].

Europar, langile-klasearen bizibaldintzetara egokitzeko, zenbait erabaki-instantzia –zerga-politika eta moneta-politika, besteak beste– nazioz gaindiko instantzien esku utzi ziren. Era horretan, instantzia horiek sindikatuen eta hainbat alderdi politiko nazionalen presioaren eraginez kanpo gelditu ziren. Doikuntza horiek kapitalaren balorizazioarako baldintzarik onenak berrezartzera bideratuta leudeke, bai errentagarriak ez diren kapitalak suntsituz, bai gehiegizko gastu publikoaren moduko estatu-oztopoak murriztuz. Helburua argia zen: soldatak produktibitatearen gainetik ez haztea modu orokorrean, hori funtsezkoa baita Europa mailako metaketa kapitalistarako^[4].



**EBn Eurokopako
Banku Zentralean
kristalizatutako
botere ekonomiko
independente
bat dago gaur
egun, baina ez da
EBZren botere
independentea
gobernatzen duen
gobernu zentral
komunitario
bat edo antzeko
ezer, hautu
demokratiko
zuzen bati lotuta
dagoena**

Testuinguru horretan instituzionalizatzen dira EB eta EDB, gaur egun ezagutzen ditugun bezala. Zehazki, 1993an Maastrichteko Ituna indarrean sartu eta 1997an konbergentzia-irizpideak onartu ondoren hasi zen eurogunea sortzen. Ikuspegi geopolitikotik, eurogunearen egitura Frantziako eta Alemaniako burgesien gidaritzapean eta kompetentziapean eraiki zen. Frantziak Bundesbank-en eta Alemaniako markoaren alde bakarreko boterea ordezkatzeko gai izango zen finantza-integrazioa nahi zuen, moneta bakarra eta Europa mailako banku zentrala sortuz. Baina, euren markoa sakrifika-tzearen truke, Alemaniak konbergentzia-irizpide zorrotzak ezarriko zituen. Horien arabera, estatu kideen aurrekontu-defizitak ezin du BPGren % 3 gainditu edo zor publikoak ezin du BPGarekiko % 60ko ratioa gainditu. Gainera, EBZ Europa mailako Bundesbank gisa finkatuko zen, edozein botere politikorekiko izaera erabat independentearekin, eta haren helburu bakarra prezioak % 2ko inflazioaren inguruan kontrolatzea izanik.

Teoria ekonomiko neoklasiko eta monetaristek euroaren eraikuntza markatu zuten. 1970etik aurrera nazioarte mailan hegemoniko bihurtu ziren, eta adierazten zuten inflazioaren kontrola zela botere publikoek zaindu beharreko arrazoi makroekonomiko nagusia. Halaber, inflazioa leuntzeko nahia ez da langile klasearen aurrez-kien balizko murrizketagatik, beste bi arrazoiengatik baizik: batetik, aurrei-kusi gabeko inflazioak mailegu-har-tzekodunei eragiten dien kalteagatik; bestetik, inflazioaren kontrola aitzakia ezin hobea delako kapitalaren errenta-garritasun-baldintzekin bateraezinak diren soldata-igoerak eragozten dituzten politika ekonomikoak ezartzeko^[5].

EBn Europako Banku Zentralean kristalizatutako botere ekonomiko independente bat dago gaur egun, baina ez da EBZren botere independentea gobernatzen duen gobernu zentral komunitario bat edo antzeko ezer, hautu demokratiko zuzen bati lotuta dagoena

(demokrazia liberal-ordezkatzailearen terminoetan hitz eginda). Europar Batasunaren Hitzarmenaren 107. artikulua arautzen duenez, EBZk erabateko independentzia du. Horren bidez, Europako finantza-kapitalaren erabateko independentzia bermatzen da botere politiko ororekiko; izan ere, EBZko agintari gehienak goi-finantzen mundutik datoz, eta ekonomia-teknokrata moduan aurkezten dira^[6].

Horrez gain, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Hitzarmenak, 125. artikuluan, berariaz debekatzen du Europako erakundeek finantza-zailtasunak dituen EBko kide den herrialde bat ekonomikoki laguntzea. Hau da, finantza-erreskate bat eskaintzea. Debeku hori *no bail-out* klausula gisa ezagutzen da. Era berean, debekatuta dago EBZk eta estatuetako gainerako banku zentralek beren herrialdeko edo beste herrialde bateko zor publikoa erostea. Horrela, herrialde bakoitzeko kontu publikoak barne-austeritatera kondenatuta egongo dira, hau da, soldatak eta gastu publikoak murriztera.

EDBren arazo handienetako bat, ordea, dibisa bakar bat sortu izana da errealitate ekonomiko oso desberdinak dituzten herrialdeentzat. Azken batean, marko berean bi izaera oso ezberdin dituzten herrialdeak elkarbizitzten dute: batetik, oinarri produktibo handiko ekonomia esportatzaileak; bestetik, zerbitzuen sektoreko ekonomia erabat inportatzaileak, kudeaketa-ekonomiak dituztenak, zeinak ezin duten haien moneta-politika manipulat. Aldi berean, konpentsazio gisa, ez dago inolako mekanismorik estatuen arteko birbanaketa fiskalerako.

Gainera, EDBko kide izatera igaro ziren estatu askok ez zituzten betetzen euroaren markoan sartzeko ezarritako konbergentzia-irizpideak. Adibidez, Italiak 1997ko azterketa BPGren % 117,4ko zor publikoarekin igaro zuen, sarrera-irizpideek ezarritakoaren ia bikoitzarekin. Bestalde, Greziak, eurogunekeo katebegi ahul gisa, 2001ean sartu zen, % 104,7ko zor publikoarekin.

Next Generation EU funts europarretara: atzeko atetik sartuko dira eta makillatuta eta ozen aldarrikatzen den austeritaterik gabe heldu badira ere, funtsean aurreko erreskate-paketeen berdinak dira. Izan ere. EBk soberan ditu langile klasearen bizi-baldintzak etengabe debaluatze mekanismoak

Azken urteotan, soberakinak birziklatzeko mekanismo bat sortzeko proposamena izan da joera neokeynesiarrereko autore askoren proposamen nagusia. Horren bidez superabita duten herrialdeetatik defizitarioak diren horietara itzuli beharrik gabeko trans-

ferentziak bideratzea planteatzen dute^[7]. Dibisa berak elkartutako baina dibergentzia ekonomiko handiak dituzten herrialdeentzako mekanismoa litzateke. Izan ere, merkataritza-defizit iraunkorrak dituzten herrialdeek ezin dute beren dibisa debalatu nazioartean lehiakortasuna berrezartzeko, eta lan-kostuen, soldaten, diru-laguntzen, subsidioen eta abarren barne-debaluazioaren bidez lortzen dute lehiakortasun hori berrezartzea.

Hala ere, Maastrichteko Ituna mekanismo egonkortzaile hori gabe egin zen, eta horrek arrisku hori bloke monetario osoan partekatu

ezina ekarri zuen, kapital-fluxuak produktiboki gutxien garatutako eremueta birbanatzea ahalbidetuko lukeen mekanismo fiskalik sortu gabe. Horren aurrean, integrazio ekonomiko eta monetarioak berak egonkortze bat ekarriko zuen fedea izan zuten, hau da, Batasuneko herrialde guztien arteko ekoizpen- eta errenta-parekotasun handiagoranzko norabideari berez helduko zitzaiola. Baina hori ez zen gertatu, eta Europako integrazio-eskema asimetrikoa agerian geratu zen 2008an Wall

Street-eko krisian, espekulazioaren eta finantzen metatze-zikloaren kontraesanak lehertu zirenean. Herrialde periferikoek, zeinen zor-bonuekin espekulatu baitzuten Europako inbertsio-banku handiek, maileguak lortzeko zuten biderik ohikoena galdu zuten. Testuinguru horretan, EBZk esku hartu behar izan zuen eta azken uneko mailegu-emaila gisa jardun zuen, bai finantza-sistamarako, bai zor-merkaturetatik kanporatuak izan ziren estatu periferikoetarako.

Soberakinak birziklatzeko mekanismorik gabe, 2010eko maiatzean Greziako erreskatearekin hasitako euroguneko krisian, erreskatea inprobisatu behar izan zen, erreskate-plan komunitarioen eta EBZk asmatutako hedapen kuantitatiboko ezohiko planen bidez. Jakina, EBZren erreskate-plan oro gauzatzea eta larrialdiko likideziari eustea, austeritate-plan zorrotzak betetzearen mende zeuden, zeinak Troika ezagunak –Europako Batzordeak, EBZk eta Nazioarteko Diru Funtzak (NDF) osatutako hirukoa– zuzentzen zituen. Horrela iritsi gara COVID-19aren krisira eta *Next Generation EU* funts europarretara: atzeko atetik sartuko dira eta makillatuta eta ozen aldarrikatzen den austeritaterik gabe heldu badira ere, funtsean aurreko erreskate-paketeen berdinak dira. Izan ere. EBk soberan ditu langile klasearen bizi-baldintzak etengabe debaluatze mekanismoak.



EUROPAR BATASUNAREN HIRU DOIKUNTZA-MEKANISMOAK

Telebistako solasaldietan parte hartzen duten guru ekonomiko nagusiek EBk bizi duen krisi ekonomikoa kanpoko shock hutsetara murrizteko joera dute, kapitalismoaren ohiko joerekin zerikusirik ez luketenak. Halaber, hirurogeita hamarreko hamarkadaz geroztik, mendebaldeko kapitalismoa mendeetako krisi luze batean murgilduta dago, intentsitate txikiagoko edo handiagoko krisi-aldiak jasanez, baina hazkunde ahuleko susperraldiak izanda beti. Hala erakusten dute Triada Ekonomikoa deituriko herrialde nagusien datuek (AEBak, Japonia eta EB). Herrialde horien artean batez besteko sinplean neurtutako BPGaren hazkunde-datuek beheranzko joera erakusten dute hirurogeiko hamarkadako maximoetatik: % 5,6ko (1961-65) eta % 5,4ko (1966-70) tasen hazkundearen ostean -% 3,2koa (1971-75) eta % 3,3koa izan zen krisi-garai betean (1976-80)-, 80ko hamarkadatik aurrera hazkundearen erritmoak beheranzko joera nabaria du, hazkundea % 5ekoa (1981-85), % 3,6koa (1986-90), % 1,8koa (1991-95), % 2,7koa (1996-00) eta % 1,7koa (2001-05) izanik^[8].

Joera horrek agerian uzten du 2008ko krisia ez dela sortu munduko kapitalismoaren goranzko aldi baten agortze soiletik. Horren aurrean, EBk, eta zehazkiago bere lurraldean jarduten duen burgesiak, irabaziak bultzatzeko eta krisitik ateratzeko mekanismoak topatu behar ditu. Espainiako estatuan, esaterako, zentzu horretan izandako doikuntzarik nabarmenena 1992-1996 arteko Europako Erkidegoarekin bat egiteko programa da, 1992ko maiatzean Felipe Gonzalezen PSOEn Gobernuaren ekimenez onartutakoa. Lege horrek EBk abian jarritako barne-merkatuen koordinazio delakoari erantzuten zion, euroan sartzeko baldintza gisa. Besteak beste, aldi baterako kontratuen gehieneko iraupena sei hilabetetik hamabi hilabetera luzatu zen, eta soldatei eusteko eta langabezia-prestazioa murrizteko neurriak ezarri ziren. Horiek izan ziren lehen lan-erreformak

Joera hori ez da soilik Europako periferiako estatuetan gertatzen. Alemaniak berak ere bere ekoizpen-mailaren araberako soldata-debaluazioarekin lortzen du bere ekoizpen-makinariak lehiakortasun tasa handiak mantentzea. Alemaniak 2003an legeztatu zuen *minijobs* deiturikoen erregulazioa. Enplegu horien bidez, langileak hilean gehienez 450 euroko soldata jasotzen du, eta orduko 8,84 euroko gutxieneko soldatak ezarritako gehieneko ordurikopuru bat lan egin behar du. *Minijob* horietan, batez besteko soldata 291 eurokoa da. Kontratu mota horrek erraztasun handiak ematen dizkie enpresaburuei langileak kontratatatzeko eta kaleratzeko. 2011rako, 7,3 milioi alemaniar baino gehiago, Alemaniako lan-indarraren % 25 inguru, *minijob* motako enplegu batean ari zen. Gainera, Alemaniako Ekonomia eta Gizarte Institutuaren (WSI) ikerketa baten arabera, 2019an *minijob* bateko langileen erdiek kontratu mota horretarako ezarritako gutxieneko soldata baino gutxiago kobratu zuten^[9].

***EBZ funtsezkoa da EBren
gobernantza kapitalistan.
Europako kapitala
modernizatu nahi duten
berreskuratze-funtsak
bezain garrantzitsuak
dira EBZren diru-hedapen
kuantitatiboko programak,
Europako kapitalismoa
ez desintegratzea
ahalbidetu dutenak***

Zalantzarik gabe, soldatak debaluatzeo estrategiak beste doikuntza bat izan zuen 2010etik aurrera, Troikak bultzatutako austeritate-planen baitan. Zehazki, hartzekodun horien erreskatemailegua jaso zuten estatuak izan ziren azken hamarkadan soldata- eta gizarte-debaluazio handiena jasan zutenak (Grezia, Zipre, Portugal, Irlanda eta Espainia). Irlandan, esaterako, soldatek BPGrekiko duten partaide-tza % 19,2 jaitsi zen 2009. urtearekin alderatuta.

Azken batean, Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) datuen arabera^[10], soldataren kontentzio konstante horren ondorioz, Europako soldata osoaren laurdena aberatsena den biztanleriaren % 10era bideratu da. Aberastasun-kontzentrazio hori bizkortu egin da errenta handienei ezarritako desarautze fiskalaren bidez; izan ere, EDBko kide diren herrialde guztien kasuan, Sozietateen gaineko Zergaren batez besteko zerga-tasa 1995eko % 36,8tik 2014ko % 25,9ra igaro da.

EBk bultzatzen dituen kapitalaren kontzentrazio- eta zentralizazio-helburu horietara iristeko, Europako Erkidegoko erakundeek hiru mekanismo dituzte langile-klasearen soldata debaluatzeo, nahiz eta estatu bakoitzean forma desberdina hartu:


1) Egokitzapen iraunkorreko mekanismoa

EBk badu mekanismo bat herrialde baten kontu publikoak etengabe baldintzatzeko eta aldatzeko; izan ere, estatuen urteko aurrekontu guztiek Europako Batzordearen azterketa igaror behar dute. Azterketa hori askoz ere gogorragoa da eurogunea osatzen duten herrialdeentzat, konbergentzia-irizpideak zorrotz bete behar baitituzte. Beraz, baimendutako defizitaren % 3ko gehiengotik desbideratzen den gastu gehigarri oro zentsuratu eta zigortu egiten du Batzordeak.

Neurri hori estatuetakoko gobernuetako dagokie, baina eragina du udalen tokiko aurrekontuetan ere. Finean, azken horiek, gastu-muga arautzen duen le-

gearen bidez, behartuta daude orekan dagoen aurrekontu bat aurkeztera. Horren adibide gisa, 2017aren amaieran Manuela Carmena buru zen Madrilgo Udalak aurkeztu zituen kontuak dauz-kagu. Garai hartan Ogasuneko zinegotzi zen Carlos Sanchez Matok –Ezker Batuako kidea–, defizita eragiten zuten udal-aurrekontuak egin nahi izan zituen, aurreko ikasturteetan Udalak bere zorra murriztu zuela argudiatuz. Horrela, PPko Cristobal Montorok zuzentzen zuen Ogasun Ministerioari aurre egin zion Sanchez Matok, Udalarentzat baimendutako gastua 244 milioitan gaindituz. Manuela Carmenen erantzuna lasterra izan zen: bere zinegotzia kargutik kendu zuen eta gastu publikoa zuzentzeko aurrekontu berri bat egitea proposatu zuen, Espainiako Gobernuari eta EBri aurre ez egiteko, hori baitzen maniobra horren atzean zegoena.

Krisi pandemikoa dela eta, Europako arau fiskalak etenda daude gaur egun. Hori dela eta, gobernuak gastu handiagoa egin dezakete. Hala eta guztiz ere, 2023an etenda jarrai dezaket arren, arau horiek itzuli egingo dira, izan aurrekoen forma berean, izan erreformaren batekin. Baina gastu edo zorpetze handiagoa baimentzeak ez du esan nahi, nahi-taez, gastu hori osasunera, zain-tzara edo hezkuntzara bideratuko denik, sozialdemokraziak sinestazten digun bezala. Ezohiko gastu hori industria birmoldaketarako edo estatuak berrarmatzeko erabil daiteke, gaur egun Ukrainako gerraren testuinguruan ikusten ari garen moduan.



Historian lehen aldiz, eurogune osoaren zorra haren ekonomia baino handiagoa izan zen 2021an, hau da, euroaren eremuko herrialde guztien BPGaren % 100 baino handiagoa. Zorpetze handia duten estatuekin batera, Europak aurre egin behar dio galera ekonomikoak dituzten eta kaudimenik ez duten enpresak finantzatzen aritu izanari. Enpresa horiek kiebra egiteko arrisku larrian egongo dira, EBZk interes-tasak igo eta estimulu artifizialen politikarekin amaitzen duenean

2) Egokitzapen koiunturalaren mekanismoa

Mekanismo hori EBk krisi bati erantzunez sortzen duen erreskate ekonomiko edo funts orori dagokio, EBren arkitektura politiko-geografikoa ez apurtzen saiatzen baita. Adibidez, Greziak bere burua kaudimengabetzat jo zuenean eta merkatuetatik kanpo geratu zenean 2010ean, bere zorra birfinantzatu ahal izateko, EBk, NDFrekin batera, erreskate pakete bat eskaini zion Greziako Gobernuari. Erreskatea ez da inoiz doakoa; izan ere, zatika ematen da beti, eta zati bakoitza desblokeatzeko egiturazko erreformak egin behar dira. Erreforma horiek, gehienetan, lan-merkatua malgutzea eta gastu publikoa murriztea dakarte.

Mekanismo horretan sartzen dira gaur egungo Europako berreskuratze-funtsak. Kasu honetan, ordea, herrialde jakin baten erreskatea izan beharrean, Europako Batzordeak finantzatutako EB osoaren erreskate moduko bat dira. Dena den, funts horien zenbatekoaren ia erdia Europako ekonomian pisu handia duten baina ekonomikoki eskasak diren estatuek

jasoko dute. Besteak beste, Espainiak eta Italiak. Izan ere, EBk eta Europa erdialdeko burgesia esportatzaileak ezingo lukete bizirik iraun bi herrialde horiek eroriko balira, beren merkantzien helmuga nagusia hegoaldeko Europa baita.

Gainerakoan, betiko mekanismoa dugu kasu honetan ere: zatika ematen diren funtsak, erreformen baldintzapean, azken lan-erreforma edo pentsioen etorkizuneko erreformaren bidetik. Oraingoan Troikarik ez egon arren, doikuntza-mekanismoa Europako Seihilekoa deritzonak ordezkatzeko du. Hau da, EBko herrialdeen politika ekonomikoak koordinatzen dituen markoak. Argi esanda, ezarritako erreformak kide diren estatuek betetzen dituztela gainbegiratzeaz arduratzen den Europako Batzordeko mekanismoa da.

3) Premiazko doikuntza-mekanismoa

Mekanismo hau larrialdi-egoerei dagokie, EBko botereek estatu kide bat diziplinatu nahi duten kasuei, esaterako. Mekanismo hori EBZak eskainitako diru-likideziaren balizko etenaren mende dago, haren ezohiko edo larrialdiko likideziaren mende bereziki. Horregatik, EBZ funtsezkoa da EBren gobernantza kapitalistan. Europako kapitala modernizatu nahi duten berreskuratze-funtsak bezain garrantzitsuak dira EBZren diru-hedapen kuantitatiboko programak, Europako kapitalismoa ez desintegratzea ahalbidetu dutenak.

Gaur egun, EBZ da defizitarioak diren eta erabat zorpetuta dauden Europako periferiako herrialde guztietako zor-bonuen erosle nagusia. Hala ere, erakunde horrek era autonomoan erabaki dezake programa horiek gutxitzea –hurrengo hilabeteetan egingo duen bezala, erabateko ziurgabetasunarekin– edo, are gehiago, herrialderen bateko banku-sistema likidezia horretatik kanpo uztea. Hori gertatu zen 2015ean Syrizaren Greziako Gobernuak erreferendum bat deitzea erabaki zuenean, herritarrei EBk erreskatte ekonomikorako eskatutako neurriak onartzeari buruz galdetzeko.

Garai hartan, Greziako herrialdeko banku-sistemak hilabeteak zeramatzan EBZk eskainitako larrialdiko diru-likideziari lotuta. Halaber, ezkerreko sozialdemokraziak azken urteotan EBri proposatutako erronka politiko handienaren ulean baino ez zuen erabaki Mario Draghi buru zuen erakunde monetarioak, likidezia moztu eta Grezia *corralito* batera kondentatzea. Presio politikorako eta diziplinatzeke mekanismo argia izan zen hori, langile greziarrak aurrezkiak eskuratu ezinik geratu baitziren, kutzazain automatikoetatik dirua ateratzeko gehienezko muga eguneko 50 eurokoa izan baitzen pertsonako ^[11].

*Hortaz, funts horiek
honako ondorio hauek
ekarriko dituzte: batetik,
4.0 teknologiako puntako
enpresak digitalizatuko
dituzte; bestetik, sektore
elektriko eta energetikoko
enpresa handiak
modernizatuko dituzte
birmoldaketa ekologikorako;
azkenik, zerbitzuak
birfinantzatuko dituzte
enpresa liderrak European
instalatu ahal izateko.
Baina ez dute inola ere
berreraikiko Europako
ongizate-sistema, osasunerako
edo hezkuntzarako
aurreikusitako partidak
hutsaren hurrengoa baitira*

Horregatik, berreskuratze-funtsek, beren enpresa edo fakzio liderren eta punta-puntakoen kapitala modernizatuko badute ere, horiek jasotzearen truke langile guztiei eragingo dieten erreformak ekarriko dituzte

NEXT GENERATION-ETIK NEXT CRISIS-ERA

Asko hitz egin da COVID-19aren krisia gainditzeko EBk bere estatuen artean inbertituko dituen 750.000 milioi euroko zenbatekoari buruz, zeinak kapitalaren funtsezko sektoreak modernizatzea izango duen helburu. Hala ere, funts horiek enpresa handiek kudeatuko dituzte eta, horiek eskuratzeko, planak egin beharko dizkiete gobernuak, haiek onar ditzaten. Plan horiek, gehienetan, aholkularitza-enpresa handiek (KPMG, EY, Deloitte edo PwC) egiten dituzte, kostu oso handian.

Next Generation EU planaren gora-beheretan sartzea baino gehiago –plan horri buruz asko hitz egin eta idatzi baita zentzu kritikoa^[12]–, azken puntu honetan interesatzen zaigu plan hori ulertzea Europako kapitalismoaren etorkizuneko testuinguruari begira, eta ea etorkizunean atzeraldi bat saihestuko duen, langile-klasearen bizi-mailan murrizketa gehiago ekarriko dituen. Bada, EB hasi da funtsen zenbatekoak banatzen, European panorama belzten ari den unea. Izan ere, inflazioak, EBZk diru-estimuluak kentzeak eta NATOren eta Estatu Batuen bloke geopolitikoko kide izateagatik EBk Errusiaren aurrean izaten ari den lurralde-nagusitasunagatik gerra estrategikoak krisi testuingurua areagotu du.

Historian lehen aldiz, eurogune osoaren zorra haren ekonomia baino handiagoa izan zen 2021an, hau da, euroaren eremuko herrialde guztien BPGaren % 100 baino handiagoa. Zorpetze handia duten estatuekin batera, Europak aurre egin behar dio galera ekonomikoak dituzten eta kaudimenik ez duten enpresak finantzatzeko aritu izanari. Enpresa horiek kiebraz egiteko arrisku larrian egongo dira, EBZk interes-tasak igo eta estimulu artifizialen politikarekin amaitzen duenean. Europako Parlamentuarentzat 2021eko maiatzean egindako txosten batek ohartarazten zuen Europako enpresen % 15 inguru enpresa «zonbiak» direla; hots, finantza-egoera txarra dakartela denbora luzez, eta hori ez datorrela arazo puntual batetik. Horrek porroteara bultzatzen ditu, babes publikoekin ere ezingo dute iraun^[13].

Urte honetan bertan, NDFk ohartarazi du zor korporatibo pribatua munduko BPGren ia % 100era iristen dela. Ukrainan gerra hasi aurretik, NDFk berak adierazi zuen banku zentralak inflazioa kontrolatzeko interes-tasak handitzen ari diren honetan, enpresen zorra birfinantzatzeko kostuak handitu egingo direla. Zaurgarritasun korporatiboak agerian geldituko dira gobernuak krisiaren punturik gorenean enpresa kaltetuenei eman zieten laguntza fiskala murrizten dieten heinean. Gerta liteke NDFk gobernuak

eskatzea COVID-19aren ondoren sortutako testuinguru ekonomiko berrian errentagarri izan daitezkeen enpresak berregituratzea, edo, besterik gabe, enpresa horiek erortzen uztea.

Hemen sartzen da, hain zuzen ere, EBren *Next Generation EU* berreskuratze-funtsa. Azken hori laguntza publikoen funts handi bat da, eta garrantzi berezia duten enpresa-sektoreak berregituratzea du helburu, sektore horiek beren irabazi-tasak berreskura ditzaten eta Europako eremu geografikoa hirugarren polo lehiakor bihurtu dadin AEBen eta Txinaren arteko lehia ekonomikoan. Hortaz, funts horiek honako ondorio hauek ekarriko dituzte: batetik, 4.0 teknologiako puntako enpresak digitalizatuko dituzte; bestetik, sektore elektriko eta energetikoko enpresa handiak modernizatuko dituzte birmoldaketa ekologikorako; azkenik, zerbitzuak birfinantzatzeko dituzte enpresa liderrak Europan instalatu ahal izateko. Baina ez dute inola ere bererreraikiko Europako ongizate-sistema, osasunerako edo hezkuntzarako aurreikusitako partidak hutsaren hurrengoa baitira.

Helburu horrek berak ere, ordea, huts egin diezaioke Europari. Azken batean, berreskuratze-funtsak EBko BPG osoaren % 0,8a dira, 2020an, pandemiaren urte gogorrean, EBren BPG erantsia % 6 erori zenean (800.000 milioi euro inguru). Gainera, gaur egun kapitalismo europarra ataka larrian jartzen duen arazo nagusia inflazioa kontrolatzeko estatu defizitarioenen zorra erosteari utzi behar diola da, bai eta enpresak interes-tasa baxuetan finantzatzeari utzi behar diola ere. Baina hori egiten badu, periferiako estatuetan zenbait krisi eragiteko arriskua izango luke, estatu horiek kiebrara eta zorpetzera kondenatuz. Gaur egungo egoeran, beraz, Europako kapitalismoarentzat ez dago krisi gehiago ekarriko ez duen irtenbiderik.

Inflazioa eragiten duten arrazoi geopolitikoak, fenomeno hori arrazoi ekonomiko sakonagoek sortu arren, ez dira desagertuko. Alabaina, kapitalismoa artifizialki mantentzeko politikek –EBZren diru injekzio handiek, adibidez– inflazioa larriagotu dezaketela uste du EBk eta, hori dela eta, laguntza horiek pixkanaka kenduko dituzte. Dena den, EBk badaki batere produktiboa ez den produkzio-ehuna duela, eta horren porrotak aurrekaririk gabeko krisia eragin dezakeela. Beraz, inflazioak enpresa-galerak sortzen dituen eta inflazioak berak diru-estimuluak kentzea eragiten duen testuinguru batean, zer egin daiteke errentagarritasunari eusteko? Bingo, erreforma eta politika berriak, langile klasearen lan- eta bizi-baldintzak devaluatzeko.



Batetik, lan-malgutasuna areagotuko dute eta, aldi berean, langabeziaren datuak makilatu, aldizkako kontratu finko gisako asmakizun berrieekin; bestetik, gutxieneko biziraupen-sorospenen funtsak sortuko dituzte kapitalaren berregituratze-prozesutik kanpoan geratuko den biztanleria osoarentzat; azkenik, zenbait zerbitzu publiko mantenduko dira, ahalik eta gastu txikienaren truke, eta gero eta biztanleria pobreagoarentzat

Ezker sozialdemokraziak ez du ulertzen, ordea, moneta-hedapenak ez dakarrela sekula gastu soziala lehen lerroan izango duen politika sozialdemokratarik

Horregatik, berreskuratze-funtsek, beren enpresa edo fakzio liderren eta punta-puntakoen kapitala modernizatuko badute ere, horiek jasotzearen truke langile guztiei eragingo dieten erreformak ekarriko dituzte. Hauek izango dira etorriko diren erreformen gakoak etorkizuneko *Next Crisis* iraunkorraren aurrean: batetik, lan-malgutasuna areagotuko dute eta, aldi berean, langabeziaren datuak makilatu, aldizkako kontratu finko gisako asmatuz berriekin; bestetik, gutxieneko biziraupen-sorospenen funtsak sortuko dituzte kapitalaren berregituratze-prozesutik kanpoan geratuko den biztanleria osoarentzat; azkenik, zenbait zerbitzu publiko mantenduko dira, ahalik eta gastu txikienaren truke, eta gero eta biztanleria pobregoarentzat.


ONDORIO POLITIKOAK

Gako horietatik, bi ondorio politiko garrantzitsu atera daitezke. Lehenengo, EB gaur egun egiten ari denaren izaera politikoari dagokio. Egiazki, EB bere kapitala modernizatzen eta krisi-testuinguru bati aurre egiten saiatzen ari da, eta horri erantzuten diote diru-politika hedakorrek eta zorpetzea baimentzeko politikek. Ezker sozialdemokraziak ez du ulertzen, ordea, moneta-hedapenak ez dakarrela sekula gastu soziala lehen lerroan izango duen politika sozialdemokratarik. Gaur egun bizi dugun gerra-gorakadarekin ikusiko dugun bezala, EBk salbuespenezko zorpetzeak onartu ditzake, baita zor komuneko Europako funtsak planeatu ere, kide diren estatuen berrarmatzea finantzatzera bideratutakoak.

Gauzak horrela, proiektu sozialdemokratak gaur egungo EBn topatzen ditu bere proiektu politikoa gauzatzeko inoizko ezintasunik handienak. Egun, ordea, alderdi sozialdemokratak politika sozialdemokratak deitzen ari zaizkie langile-klasearen soldata erreala debaluatzen duten eta gutxie-

neko bizi-mailara kondenatzen duten politikei, aldi baterako lan-erregulazioeko espedientei edo gutxieneko bizi-sarrerari, besteak beste. Horregatik, gaur egungo EBn, ongizate-estatuaren paradigma gainbeheran eta erabateko miseriara kondenatuta dago.

Bigarrenik, EBren eta egungo egoeraren errepaso historiko batek erakusten digu estatu-nazionalak presionatzeko langile mugimendu tradizionalaren hipotesi politikoa gaindituta dagoela. Azken finean, estatu-nazionalak ezer gutxi egin dezakete beren politika fiskalak, lanari lotutakoak, monetarioak eta sozialak EBren nazioz gaindiko instantziaren mende daudenean. Egiazki, hor egituratzen da botere burgesaren benetako botere politikoa Europa mailan. Hori dela eta, estrategia sozialista batek kontuan izan behar du antolaketa-mailak nazioarteko eskala bateranzko joera izan behar duela. Errealitate zaila da, baina aldi berean premiazkoa, eta bizi dugun orainak eta etorkizunak ez digute konponbide errazik ematen. ●



OHARRAK

1 Horri dagokionez, ikusi besterik ez dago Ezker Abertzaleak eta bere alderdi instituzionala den EH Bilduk funtsak ulertzeko eta horiek kudeatzeko aukerari buruz erakutsi duten jarrera. Jarrera horren erakusgarri da Pello Otxandiano (2021) Sortuko kide eta EH Bilduko programen zuzendariak *Erria* aldizkarian argitaratutako artikulua hau: «Europako funtsak borrokarako esparru gisa. Estrategia, taktika eta praxi politikoa» (online eskuragarri). Artikulu horretan agerian geratzen dira sozialdemokraziaren ezkerreko hegaldaren kontraesanak, funtsen izaera eta EBren arkitektura politikoa ulertzen ez dutelako, edo ulertu nahi ez dutelako.

2 Europako integrazio ekonomikoaren historian sakontzeko: Perry Anderson (2012): *El nuevo viejo mundo*, Akal, Madril.

3 Joan den mendeko hirurogeita hamarrek hamarkadako krisia eta irabazi-tasaren kalkulu bat ulertzeko, nahiz eta Estatu Batuetako ekonomian oso zentratuta egon: Robert Brenner (2003): *La expansión económica y la burbuja bursátil. Estados Unidos y la economía mundial*. Europa sakonago aztertzeko, honako artikulua gomendatzen dut: Gérard Duménil eta Dominique Lévi (2005): «From prosperity to neoliberalism. Europe before and after the structural crisis of the 1970s», CEPREMAP-CNRS, Paris (online eskuragarri).

4 Europako merkatu bakarra abian jarri zenetik eta diru-integraziotik abiatuta eraikitako erakunde guztiek zuzeneko eta zeharkako soldataren etengabeko debaluazioa ahalbidetzen dutela ulertzeko: Javier Murillo eta Mario del Rosal (2012): «El euro como mecanismo de aplicación del ajuste salarial», *Economía* Kritikoari buruzko XIII. jardunaldiak, Sevilla (online eskuragarri).

5 Inflazioak duen paperari buruzko informazio gehiago: José Luis Sampedro (1976): *La inflación en versión completa*, Editorial Planeta, Madril.

6 Europako Banku Zentralaren rola sakonki ulertzeko: Mario del Rosal (2019): «Una crítica de la economía política del Banco Central Europeo», *Papeles de Europa*, Madril (online eskuragarri).

7 Europarako korrante neokeynesiarrak duen proposamenaren sintesi gisa Yanis Varoufakis-en liburua ikus daiteke, non bere pentsamendu ekonomikoa laburbiltzen duen 2015ean Syriza gobernu greziarreko Finantza ministro izatera iritsi aurretik: Yanis Varoufakis (2013): *El minotauro global. Estados Unidos, Europa y el futuro de la economía mundial*, Capitán Swing, Madril.

8 Barne Produktu Gordina erabiltzen dugu hemen neurtzeko, adierazlerik bisualena eta bilatzeko errazena baita ekonomia estatistiko ofizialak erabiltzen dituen artean. Teorizazio marxistaren garapenari lotuago dauden datuak lortzeko, irabazi-tasa kalkulatzeko tauletan sartu beharko genuke, eta hori artikulua honen irismenetik kanpo geratzen da. Hala ere, EBren estatistiken web orrian (AMECO) bertan, erraz kontsulta daiteke hirurogeita hamarrek hamarkadatik aurrera EBren kapital produktiboaren gainbehera erakusten duen adierazle bat: Kapital Finkoaren Eraketa Gordina (KFEG). Adierazle hori herrialde baten inbertsioari dagokio, eta aktibo finko ez-finantzario pribatu zein publikoen (erosketen zenbateko guztia, ken aktibo finkoen salmentak) denbora-tarte jakin bateko aldakortasunak adierazten du. Era horretan, ekonomia kapitalista jakin baten metatze-erritmoa dei genezakeenera hurbil gaitezke, kontu handiz bada ere.

9 Datuok honako lan honetatik ateratakoak dira: Comisión Europea (2018): *Case study – gaps in access to social protection for mini-jobs in Germany*, Bruselas, Oficina de Publicaciones de la UE (online eskuragarri).

10 Organización Internacional del Trabajo (2016): *Global Wage Report 2016/17: Wage inequality in the workplace*, Ginebra, OIT (online eskuragarri).

11 Europako Banku Zentralak Greziari egindako xantaiaren kontakizun bat irakurtzeko: Yanis Varoufakis (2017): *Comportarse como adultos: mi batalla contra el establishment europeo*, Deusto, Bartzelona. Honako artikulua hau, berriz, Syriza kide ohiak kontatutakoaren ikuspegi osagarria nahi izatekotan, azkenean Syriza Europak eskatutako baldintzak onartu baitzituen, erreferendumaren emaitzari traizio eginez: Éric Toussaint (2020): *Capitulación entre adultos. Grecia 2015: Una alternativa era posible*, El Viejo Topo, Madril.

12 Funtsen zenbatekoari eta banaketari buruz asko idatzi eta aztertu da jada. Mario del Rosalen artikulua gomendatzen dut (2020): «Los fondos europeos: ¿un nuevo Plan Marshall?», *Nueva Revolución* (online eskuragarri). Baita YouTubeko KoinéTV kanalak egindako bideo sorta ere, «EBko funtsak benetan nola funtzionatzen duten» eta «Europako funtsen ondorioak» izenburupean.

13 Nazioarteko erakunde ekonomikoen txostenak baino gehiago, «zonbi» enpresen arazoak ulertzeko bi artikulua gomendatzen ditut: Michael Roberts (2022): «Fallen angels», *The next recession* (on-line eskuragarri) / Yago Álvarez Barba (2020): «¿Qué es una empresa zombi y cuántas hay en España?», *El Salto* (online eskuragarri).

EKAINAK 4

HERNANI

JARDUNALDIAK

itaia



KAOS URBANO · ZARTAKO
BRIGADE LOCO · J MARTINA
BAKE FALTSUA · ALERTA GORRIA
ZIAKHUS & DÜRÜM SOLO KARNE
RAIMUNDO EL CANASTERO

EKAINAK 18 · BERRIOZAR

ERRAKI

langile kontrolpeko espazioen babes sarea

Argitalpena
2022KO APIRILA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa
eta diseinua
**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR
FACEBOOK
@ARTEKAGEDAR

Kontaktua
**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza
**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa
**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**
AZPEITIA

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Lizentzia